

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 723. zenbakia



Arrasateko 15 elkarte, sindikatu eta talderen ordezkariak prentsaurrekoa egin zuten martitzenean.

GOIATZ ARANA

INGURUMENA/ Udalatx Bizirik: orain artekoaren balorazioa

Irailean Udalatx zulatzearen kontrako hirugarren fasea

GOIATZ ARANA/UBANE MADERA

Oraingoz, 2.000 sinadura batu dituzte Udalatx mendia barrutik zulatzearen aurka. Edozelan ere, gehiago batzen segituko dutela iragarri dute. Bestalde, bihar, mendi ibilaldia egingo dute, Kanpanzarreraino.

Udalatx Bizirik taldeko ordezkariak jakinarazi zuten irailean kudeatuko dituztela Udalatx zulatzearen kontra batutako sinadurak.

Asmoa da alderdi politiko guztiekin berba egitea banan-banan eta haien erantzunaren arabera, zehaztea irailetik aurrerako ekimenak. Edozelan ere, martitzeneko prentsaurrekoan aditzera eman zuten, proiektu horren kontra dauden herritarren parte hartzea bultzatuko dute irailetik aurrera.

MENDI IBILALDIA

Bestalde, biharko, zapatua, mendi ibilaldia egingo dutela iragarri zuten. Bi ibilaldi, hain zuzen

ere: bata luzea eta bestea laburra. Ibilaldi luzea egin gura duenak 08:30ean du hitzordua, Arbola-petan. Handik hasita, Kontzezino, Udala, Gongeta eta Santa Luziatik buelta egingo dute, Kanpanzarreraino.

Ibilaldi laburra egin gura duenak, berriz, 10:00etan du hitzordua. Kasu horretan ere, Arbolapetatik aterako dira eta San Balerion zehar Kanpanzarrera iritsiko dira. Gero, 13:30ean bi ibilaldiek bat egingo dute taberna parean.

Askatasun sexualaren kontrako delitua egiteagatik atxilotuta

U.M.

Herrizaingo Sailak jakinarazi digunez, 34 urteko M.M.H. arrasatearra atxilotu zuten ekainaren 14an, ustezko delitu sexuala egiteagatik. Hain justu ere, haur-pornografiarekin lotutako delitua egiteaz akusatzen dute. Gaztearen etxean egindako miaketaren ostean, 30 bat elementu informatiko atzeman zizkioten: CDak, diske-

teak eta bideoak, guztiak ere haur-pornografiarekin lotuta.

MARTXOA EZKERO IKERTZEN

Ertzaintzak emandako datuen arabera, martxoan jakinarazi zuten partikular batek haur-pornografiarekin lotutako bideoak ikusten zituela Internet bidez Monterron kultura etxean. Hori jakinda, gertaera ikertzen hasi ziren berehala eta ikusi zuten

bideoak ikusteaz gainera, halako material gehiago zuela gazteak.

Gauzak horrela, agindu judiziala eskuratu eta Ertzaintzak M.M.H.-ren etxebizitza miatu eta hura atxilotu zuten, lehen esandako moduan, ekainaren 14an. Ekainaren 16an deklaratu zuten epailearen aurrean eta libre utzi zuten, kautelazko neurriak hartu ostean, harik eta ahozko epaiketa izan arte.

LABUR

'Oporrak Bakean 2005 Euskal Herria' festarako boluntarioak behar dituzte

Uztailaren 17an, domeka, ospatuko dute jai hori, Arrasaten. Arrasateko NUBI elkarteak antolatu du eta jakinarazi digu boluntarioak behar dituela jaietan laguntzeko. Hala, interesa duenak honako telefonora deitu beharko du: 685 72 48 17. Horrez gainera, *Oporrak Bakean 2005 Euskal Herria* jaietan egingo duten bazkarirako txartelak ere telefono horretara deituta eskura daitezke, baita gaiaren gaineko informazio gehiago behar duenak ere. Halako jai erraldoia antolatzen duten lehen aldia izango da.

Obra ikuskatzaile eta obra teknikari lanpostuak betetzeko deialdia egin du Udalak

Oraingo astean argitaratu dute iragarkia. Hain justu ere, jakinarazitakoaren arabera, bi lanpostu horiek praktiketako izaera dute eta gehienez, bi urteko iraupena izango dute. Lan jarduna, berriz, egun osorako izango da. Interesa duenak datorren eguaztenera arteko (uztailaren 13a) astia du izena emateko. Udaletxera bertara jo daiteke horretarako. Informazio gehiago behar duenak deitu: 943 79 09 00 telefonora.



Gurasoendako aldizkaria: 'Gertutik'

Uztailan estreinatu dute gurasoek Udalak argitaratu duen aldizkari berria. 0-18 urteko ikasleen gurasoei bidali dizkiete, hain justu ere, haiek seme-alabekiko dituzten kezkek argitzen laguntzea da-eta aldizkariaren xedea. Adin tarteka banatu eta tarte bakoitzeko gai jakinak landu dituzte zero zenbaki honetan. Esaterako, 0-6 urteko adin-tartean, ezetzaren garrantzia landu dute eta 6-12 urteko tartean, sexualitatea. Kezkek argitzeko txoko bat ere badu aldizkariak; halakoren bat izanez gero, prebentzio@arrasate-modragon.net helbidera idatzi edo deitu udaletxera. /U.M.

POLITIKA/ Legegintzaldiaren balorazioa

Udal jardunaren balorazio gazi-goza egin dute politikariek

UBANE MADERA

Udal legegintzaldiaren erdialdera iritsi garena-eta, udal ordezkartza duten eta izan duten alderdi politikoei orain artekoaren balorazioa egiteko eskatu diegu. Laburbilduta, esan daiteke udal gobernuko taldeen artean adostasuna dela nagusi; ez, ordea, oposizioarekin.

EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiek osatu zuten udal gobernu orain dela bi urte. Kontatu digutenez, adostasuna da nagusi euren artean, baina Ezker Batuak eta Aralarrek nabarmendu digute desadostasunak ere badituztela gehiengoa dutenekin, batez ere lau urterako aurreikusitako programa politikoaren zenbait gairekin lotuta.

Oposizioa (PSE-EE eta PP), berriz, ez dago horren pozik. Udal gobernuak ez duela batere argi jokatzeko kontaktatu digute, eta oposizioaren iritzia eta proposamenak ez dituztela eurek nahi beste kontuan hartzen. Horrez gainera, behin eta berriro salatu dute udal gobernuaren funtzionamendua ezkutukoa dela eta ez dutela behar beste-ko informaziorik ematen.

Gobernuan dauden taldeek nabarmendu dute aurrerabideak egin dituztela zenbait arlotan

Bestalde, Partiduen Legearen ondorioz Udal ordezkartza barik geratu den Herri Anitzak borondate politikorik eza salatu du. Euren ustez, ilegalizazio egoera gainditu egin daiteke zailtasun larregi barik eta alderdiek borondate politikoa erakusten badute.

PROGRAMA POLITIKOAREN GAINEAN

Programa politikoaren garapenaren gainean ere galdetu diegu talde politikoei. Gobernuan daudenek nabarmendu dute aurrerabideak egin dituztela zenbait arlotan: Gizarte Zerbitzuetan (aldizkari berria, emakumeen kontrako tratatu txarren kontrako bideari ekin diote...); Obra Sailean (Mojategiko kirol instalazioak...); Ingurumen Sailean (Agenda 21...); Hirigintzan (Izartu, etxebizitzak...) eta Kultura Sailean (eredu berria). Edozelan ere, aurrera begira oraindik ere egiteko asko dutela onartu dute eta baita ere beste proiektu asko gura baino geldoago doazela, batez ere, tramite burokratikoek eraginda. Kasu horretan ere, oposizioa ez dator bat eta proiektuak egiteko orduan udal gobernuaren obskurantismoa salatu dute, batez ere.

Oposizioa ez dator bat, eta proiektuak egiterakoan gobernuaren obskurantismoa salatu du, batez ere


INAZIO LAKUNTZA/ALKATEA ETA EAJ-KO ORDEZKARIA

“Egitamuari esker, bizpahiru urtera 1.900 etxebizitza egingo ditugu”

Balorazio guztiz baikorra egingo nuke. Gauza batzuk motel doazen arren, proiektu asko ditugu abiarazita. Herrian ikusten dira aldaketak. Kultura dinamika berria ere sortu dugu eta Egitamu Orokorren onarpenaren ondorioak ikusten hasi dira. Azpiegitura aldetik Diputazioari dagokio uztailearen 29an AP1 zabal-tzea. Guri, berriz, Olandixoko tunela egitea falta zaigu, baina espero dugu 2006ko bigarren seihilekoan abiaraztea lanak.

Bestalde, erronkak ere baditugu: mugikortasunarena, esaterako. Udalak eta Mankomunitateak ikusi dugu garraio publikoa dela penagarria gure ibarrean. Mundumirarekin esperientzia berria egin genuen; harrezkero Diputazioarekin berba egin dugu eta aurreratu genezake udazkenerako garraio publikoaren sistema berria abiaraziko dugula.

Abiarazitako inbertsio programari dagokionez, Izartu garrantzitsua da. Eta PERCOren bitartez lortu dugu erdiguneko urbanizazio oztopoak gainditzea eta auzoak erdigunera hurbiltzea. Hor sartuta daude, adibidez, Muxibarko garajeetan ipiniko duten igogailua eta aurtun eskatuko dugu beste bat Amaia Antzokitik Altamiraraino. Egingo dugun proiekturik handiena, berriz, Mojategiko kiroldegia



da. Hala, espero dugu hemendik bi edo hiru urtera, herriko itxura guztiz eraldatzea.

Bestalde, erronka ia-ia handiena izan zen etxebizitzaren eskaintza handitzea. Horretarako behar genuen tresna bat eta hori da Egitamu Orokorra. Hari esker, bizpahiru urtera 1.900 etxebizitza berri egingo ditugu, 1.000 babestutakoak. Horrekin espero dugu herriko biztanle kopurua orekatzea.

Ilegalizazioari dagokionez, espero dugu bizi dugun egoerarekin aldaketak ikustea. Dena den, lege bat beste lege batekin aldatzen da eta udaletxea ez da legebiltzarra. Legea legebiltzarrean aldatu behar da.

PAGO GARTZIA/PSE-EE

“Gobernatzen dutenekin ezin da ezer adostu edo berba egin”

Udal gobernuari dagokionez, uste dugu oso itxia dela, ez du berbarik egiten oposizioarekin, ez du ezer adosten... *Lagunendako* egindako gobernu da. Egiten dituzten esleipen gehienak eurek erabakita egiten dituzte, inolako lehiaketa barik; beraz, lagunendako lanean dabilta. Eta obskurantistak dira. Ez dituzte kritikak onartzen, ez dituzte oposizioak, eta zehazki, PSE-EEK egiten dituen proposamenak onartzen. Hori da, laburbilduta, EAJ, EA, EB eta Aralarren arteko koalizioko gobernuaren bi urteko jarduna. Egunerokoari begiratuta, ez dago biderik gobernatzen duten taldeekin ezer adosteko eta ezertaz berba egiteko. EBk, esaterako, propaganda asko egiten du, baina propaganda manipulatu da. Hauteskundeetan egin zuten propagandak zioen Arrasaten 200 etxebizitza egin dituztela, eta ez dago bat ere eraikita. Eta hori da EBren politikaren ildo nagusietako bat, etxebizitzak. Ingurumenari dagokionez, Arrasaten ezer gutxi aurreratu dute. Beraz, manipulatu egiten dute. Eta EAJk guztia ezkutatu eta lagunendako lan egiten du.

Edozelan ere, esan beharra dago igarritzen dela hobekuntza Udaleko lanean,




Batasuna ez dagoelako. Tentsio txikiagoa dugu eta lasaiago gaude lan egiteko orduan. Igartzen da. Beraz, alde horretatik balorazio positiboa egiten dugu, pozik gaude. Zuzenean ikusi dugu zelako bizi-modua dugun Batasuna Udalean egonda eta Batasuna Udaletik kanpo dela. Oro har, uste dugu Partiduen Legea positiboa dela, eguneroko lan politikoan lasaitu handia hartu dugu. Bestalde, kale borroka jaitsi egin da azken bi urteotan, nahiz eta biderudien orain berriro datorrela.

JOXE ETXEBERRIA/ARALAR

“Proiektu batzuekin ez gaude ados: harrobiak, AHT, hiltegia...”

Legegintzaldiak nahiko bide polita darama. Prospekzio, inbertsio eta aldaketa mordoa ekarriko ditu, batzuk lehendik abiarazitakoak eta beste batzuk berriak. Batzuk hoberako izango dira, beste batzuk diskutigarriak. Bi muga azpimarratu behar dira: legeak ezartzen dituenak eta politikoak. Gehiengoa duenak baldintzatzen ditu eta batzuekin ez gaude ados: harrobiak, AHT, Zubillagako hiltegia... Dena den, politikan berria izanda sorpresa hartu dut, batetik, administrazioak gauzak egiteko duen galdotasuna ikusita, eta bestetik, erabakiak hartzeko, askotan alderdien linea defendatzera joaten garena ikusita, herriko hainbat beharri erantzun beharrean. Eta ikasi dudana gauzetako bat da politikan askotan utzi behar ditugula gauza zehatzak orokortasunaren alde.

Gizarte Zerbitzuen atalean, arlo batzuetan lehengo politikak gorde ditugu eta beste batzuetan aurrerabideak egin ditugu: gurasoendako ikastaroak eta aldizkari bat, esaterako. Zaharren egoitzei begiratuta, aldaketa puntualekin aurrera egin dugu Urribarrin eta Toki Argin; Musakolakoei eraikina egingo die-



gu San Isidron, eta arazo handiagoa dugu Abaroan. Orain arteko eskaintzak ez dituzte onartu, eta beste leku baten bila gabiltza. Emakumeen arloan, berriz, aurreko legegintzaldian Emakume Txokoa egin zuten. Horrek estaldura handia eman dio. Bestalde, tratatu txarren kontrako taldea abian da, eta horren inguruan udal plan bat lantzen dihardugu, tratatu txarren inguruan lotura duten erakunde guztiekin hitzartu eta erantzun koordinatu eta bateratua emateko helburuarekin.


LUIS ETXEBARRIARTEUN/EUSKO ALKARTASUNA

“Lau urterako programaren %70-edo betetzen gabiltzala uste dut”

Gobernu batzarrean lau alderdi gara (EAJ, EA, EB eta Aralar), eta, nire ustez, nahiko lan ona egin dugu, nahiko lan garrantzitsua; gainera, gure arteko harremana nahiko ona da. Oposizioari dagokionez, demanda batzuk egoten dira beti, eta hori normala da, baina nire ustez ez dute arrazoi handirik horrela ibiltzeko.

Bestalde, lau urterako aurreikusitako programari begiratuta, %70-edo betetzen gabiltzala uste dut; beste gauza asko, berriz, ez ditugu egin ez garelako heltzen.

Lan aldetik, nire arloan (Obrak, Zerbitzu eta Mantentze Saila) nahiko lan egiten gabiltza, obra inportanteak, gainera: Mojatetik kirol proiektua, Udaletxeko teilatua, erlojuaren eraikina, erretiratuaren etxea... Nahiko lan ona egiten gabiltzala uste dut, batez ere, gauza berriak egiten gabiltzalako. Eta obra guztien artean, Mojatetik kiroldegia nabarmenduko nuke. Garrantzi handia du Udalarendako eta Obren Sailarendako, bate-tik, kirol instalazio on eta txukunak prestatuko ditugulako herriarendako;



eta bestetik, esango nuke Arrasaten sekula egin den obrarik garestiena dela. Corsan, Covian eta Antxibar enpresen artean egindako UTEak eraikiko du. Eta 11.183.745 euroko aurrekontua izango du.

Bukatzeko, ilegalizazioari dagokionez, ni horren kontra nago. Uste dut ez dagoela inor ilegalizatu beharrik; baina baita ere ikusten dut gure eskuetan ez dagoela egoera konpontzea.

UTZUNE URRIZALKI/HERRI ANITZA

“Udal alderdiek ez dute borondate politikorik egoera hau gainditzeko”

Balorazio guztiz ezkorra egiten dugu. 20 bat urtean Udalean egon ostean, kanpoan gaude Alderdien Legearen erruz, eta ikusten dugu beste alderdiak oso eroso daudela egoera horrekin. Eta Udalak eta udal alderdiek ez dute inolako borondate politikorik egoerari irtenbidea emateko. Orain gutxi aurkeztu genuen mozio baten bitartez gure proposamena (argia, zehatza eta legala) eta alderdi guztien ezetza borobila jaso genuen. Gure proposamena argia da: hautetsilapurrek dimititzea, zerrendetan haien ondoren datozenek uko egitea eta haien orde gu aurkeztea. Ikusi da hori egitea posible dela borondate politikoa badago. Azkoitian egin dute, han alkatea EAJkoa da eta apartheid gainditu dute. Uste dugu zinegotzi-lapurrek dutela erantzukizun zuzena egoera hau gainditzeko eta baka-rrik borondate politikoa behar dela.

Bi urteotako aldateten artean, berriz, nabarmendu gura dugu herritarren parte-hartzearen beherakada; horren adierazgarri da osoko bilkuren ordutegia. Oso-koa ekintza publikoa da eta herritarrei




aukera eman behar zaie joateko, baina goizko bederatzietan ipiniz gero, guztiz mugatzen dute parte-hartzea. Udaletxeko aldaketak ere aipatzekoak dira: buruen hautaketa selektiboa (langileek salatu dutena) langileen lan uzteak, prebarkazioa... Eta kultura eredia salatu gura dugu: herritarrak ikusle eta kontsumitzaile hutsak izan beharrean partaide izatea gura dugu, herriaren nortasuna bultzatuz.

JOSEBA UGALDE/EZKER BATUA

“Herritarren parte-hartzea bultzatu beharko genuke udal erabakietan”

Udal gobernuaren osaketaren aspektu positiboa azpimarratuko nuke, lau talde politikoa gaudelako; hala, askotariko sentsibilitateak batzen dira eta hori gehiago absolutua baino hobea da. Dena dela, EBk gobernuarekin adostasunak ditu baina desadostasunak ere baditu, batzuk garrantzitsuak; esaterako, babes ofizialeko etxebizitzekin lotuta. Era berean, ulertzen dut arazoa dugula batzuek ezin izan dutelako parte hartu Udalean; Alderdi Legea derogatu egin beharko lukete.

Proiektu garrantzitsu asko exekuzioan daude; egiten dabilzan asko, berriz, lehenagoko legegintzalditik datoz, beraz, haien lanaren emaitza dira. Oraingo proiektuen artean, Izarturi esker auzoak hobekuntza izango dute. Dena den, ahalegindu behar-ko gara auzotarrei errazten erdialdera etortzea, bestela baztertu egiten ditugu, batez ere, zailtasunak dituzten nagusien-dako-eta ez da bidezkoa. Are gehiago, ingurumenaren ikuspuntutik ere komeni zaigu urbanoa... erabiltzea. Jaurlaritzak abiatu digu Arrasateko partikula mailak askogatik gainditzeko duela legeak ezartzen



duen muga. Eta muga hori altua da, beraz, posible da osasun arazoren bat izatea. Neurriak hartzen hasi beharko gara berehala. Bestalde, erabateko gardentasuna beharrezkoa da gobernuan, inork zalantzan ipin ez dezan Udalaren lana legezkoa dela; oraingo egoera bideratu beharko dugu.

Udalaren erabakietan herritarren parte-hartzea bultzatu beharko genukeela ere uste dut (erreferendum bitartez...).


ITZIAR LAMARAIN/ALDERDI POPULARRA

“Dudan sentsazioa da gobernuan EAJk erabakitzen duela guztia”

Bi urteotan, gauzak egin diren arren, EAJk agintea izan zuen lehenagoko legegintzaldietako proiektuak berreskuratzen dabilta. Eta hori atzerapena da; izan ere, urteotan guztiok eboluzionatu dugu, gizarteak eta obrak ere bai. Guztiz kontra nago Zerrajeran Musika Etxea egiteko 1998ko proiektu bat ateratzearekin, batez ere, badagoelako beste proiektu bat Goikobaluk eta Arrasate Musika aurkeztutakoa. Proiektu hori Udaleko kaxoi batean dago “lo”. Nik haren berri izan dut partikular batek jakinarazi didalako, baina ofizialki inork ez daki ezer. Eta proiektu ederra da. Berriz diot, gauza batzuk egin dira Arrasaten, baina hor dago, era berean, erretiratuaren etxea. Erretiratuak gura ez duten zulo batean egin gura zuten; haiek ez dute onartu eta egitasmoa erretiratu egin dute aurrekontutik. Beraz, 2005ean ez dute ezer egingo. Baina aurre-rago, zer egingo dute? Niri ez didate ezer esan. Badirudi udal gobernu honetan gauza guztiak isilpean egin behar direla, garai-penak norbaitek eraman ditzan. Eta hori ez da kontua. Kontua da gauzak ahalik eta



parte-hartze handienarekin egitea, ahalik eta garbiena, baina ez lardaskeriekin. Kultura etxearen kontua astakeria hutsa da. Babes ofizialeko etxebizitzak ere egundoko atzerapenarekin dabilta. Gobernu taldea motela da, obskurantista eta sentsazioa dut EAJk erabakitzen duela dena. Ilegalizazioaren gainean, berriz, ez dut ezer objektatzeko, ni ez nintzen-eta aurreko legegintzaldian Udalean izan.

 **Txitxinpe**

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

 **KONTRATAK**
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39
- ZAPATUA, 9**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- DOMEKA, 10**
Español. Araba etor. 14. 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 11**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 12**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 13**
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 14**
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 15**
Corcuera. M. Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna) |

OHARRAK

UDALTXERA MENDI MARTXAK

Bihar, zapatua, Udaltxera bi mendi martxa egingo dituzte: bata, 08:30ean eta bestea, 10:00etan. Biak Arbolapetatik irtengo dira. Horren ostean, 13:00etan, kontzentrazioa egingo dute Kanpanzar jatetxearen ondoan. Bai Udaltx! plataformak antolatuta.

FILMA MONTEIRONEN

Gaur, egubakoitza, *La interprete* filma emango dute Monterronen, 22:30ean. Doan izango da.

SAHARREI OMENALDIA

Eguenean, hilaren 14an, alkateak ongietorria egingo die uztailean herrira etorri diren ume saharrei. Ekitaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 18:30ean.

KONTZERTUA GURE LEKUN

Gaur, egubakoitza, Radio Wings taldeak (Chicos Boom ohiak) Gure Leku tabernan kontzertua egingo du, 23:30ean. Doan izango da emanaldia.

MARGOLANEN ERAKUSKETA

Jose Ramon Elortza elgoibartarrak margolanen erakusketara jarri du Arregi galerian (Maala kalea). Abstrakzioak landu ditu, eta oso geometriko eta koloretsuak dira lanak.

AEDrenAGENDA

MORAU TA AGOTAK TALDEAREN KONTZERTUA

Datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Morau Ta Agotak taldeak kontzertua egingo du Ferreríasko plazatxoan, 23:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Loteria Primitiboa eta ONCE, San Andresera

803.539 euro (orduko 133. 697.805 pezeta) irabazi zituen arrasatear batek Loteria Primitiboan. Sei zenbaki asmatu zituen irabazleak San Andresko Garai administrazioan bete zuen txartela. Ez zuten jakin nor izan zen irabazlea. Horrez gain, ONCEk 175 milioi pezeta utzi zituen San Andresen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Larritu”



— Gure txikia lotixa da demasa, eta eskerrak orri....

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Iñaki Gonzalez, Guatemalan bizi den aretxabaletarra ‘Bidaien tartea’-n

Uda Giroan saioan, eguaztenetan, oporretarako gomendioak jasotzeko, *Bidaien tartea* izaten dugu; atzerrian bizi diren debagoiendarrak gonbidatzen ditugu beraien bizipenak kontatzeko. Oraingo honetan, Guatemalarraino hurbiltzeko bidea izan dugu Iñaki Gonzalezen eskutik. Oporrak dituela eta, bere jaioterrira itzuli da, baina laster, hilabete eskas barru, maletak egingo ditu berriz ere Guatemala itzuli eta hango lanarekin jarraitzeko. Irakaslea dela kontatu zigun eta bera bizi den

Antigua herria, ikustekoa eta gomendatzekoa zela gaineratu zigun; beste hainbat gomendio ere eman zizkigun. Asteburuan izango duzue, besteak beste, Iñakik kontatutakoak entzuteko aukera.

ZORIONDU ARRASATE IRRATIAN

Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu gura badituzu, gogoratu *Uda Giroan* saioan egunero duzula aukera, 10:45ean. Bidali eguztu zure eskaria, 943 71 17 31 telefono zenbakira edo irratia@goiena.com helbidera.

HAUGIROA!

MINIMOA	10 °C
Domeka, 3	
MAXIMOA	32 °C
Domeka, 3	
ASTEKO EURIA (l/m²)	2,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	25 °C	16 °C	— l/m²
Eguena, 30	24 °C	12 °C	0,8 l/m²
Egubakoitza, 1	26 °C	15 °C	— l/m²
Zapatua, 2	32 °C	10 °C	— l/m²
Domeka, 3	29 °C	14 °C	0,4 l/m²
Astelehena, 4	19 °C	16 °C	0,8 l/m²
Martitzena, 5	22 °C	11 °C	0,9 l/m²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratu**a. Iñaki Gonzalez; Jon Sarasua eta Aitor Ziardegi, Kilometroak 2005eko abestiaren gainean, Irene Zenitagoia, *Lorategia tartea*-n, Maria Jesus Aspe, Aramaioko zentro meteorologikoaren gainean...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratu**a.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 **UDA GIROAN**
Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Garaio, Donostiako Aquarium eta Musakolako igerilekuarekin konektioak. Lorak eta landareak. Bidaiak. Paseoak eta ibilaldiak. Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.


12:20 **Izarren ordua**: abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegia**.

14:00 **UDA GIROAN** (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.

KALEINKESTA/ Sikutie dala-eta, arduretute?



JON ZABALETA
Ikaslie



AMALIA ESPEJO
Langillie



ENCARNACION GIL
Langillie



LEIRE BIGURI
Ikaslie



MIKEL OTXOA
Langillie



MIGUEL ANGEL AZPIAZU
Langillie

Hamen beti egitten dau eurixe, eta ez dot uste problemarik dauenik. Egixe da aurrekuen sue egon zala Udalan. España aldien bai da problemie, baiñe hamen ez dot uste.

Arduratu egitten naz, baiñe ez dot uste Euskal Herrixen hori problema hori daukounik. Kataluñan-eta badau hori problema hori, baiña hamen ez dot holakorik ikusten, momentuz, behintzet.

Hamen ez. Telebisiñue ikusten dotenien eta beste leku batzuetan zelan dabitzen jakinde, arduretu egitten naz, baiñe hamen ez dot pentsetan hori problema hori daukounik.

Bai, arduraketan naz, eguraldixe asko aldatu dalako. Uda partien kriston berue egitten dau, eta neguen hotz haundixe. Mendire jueten nazenien argi ikusten dot zelaixek ez dauzela berde.

Hamen ez dou problema haundirik eukitten; gaiñera, bero egitten dauenien hobeto moldaketan naz. Hegoaldien problema haundixe daukie, baiñe hamen ez da horrenbestera.

Bai, arduraketan nauen kontue da, eta asko zain-ddu biherko geukena, gaiñera. Akaso, hamen ez dau horrenbestera problema-rik. Murtzian larri dabit, eta golf zelai mordue daukie.

USTEAKUSTE

TXALOAKETATXISTUAK

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal

Udalatx

Iazko azaroan jakin genuen Kanpanzar harrobiko enpresak Udalatx zulatu gura zuela harriak bertatik ateratzeko, eta dagoeneko hasia zegoela zeregin horretan Eusko Jaurlaritzako baimen bati esker. Enpresako arduradunek guregana jo zuten lan horiek bertatik bertara ikusi eta proiektuaren berri emateko.

Hasieratik enpresako arduradunek aditzera eman ziguten herritarrek proiektua begi txarrez ikusiko balute, ez zutela egingo.

Bitartean, lanek poliki-poliki aurrera egiten jarraitzen dute. Ezker Batua alderdiak udaletxean mozio bat aurkeztu zuen gai horren gaineko erreferenduma egiteko. Aralarrek ezik, beste alderdi guztiek-ezezkua eman zioten EBri, pisu bariko arrazoiak emanaz: oraindik galdeketa egiteko goizegi zela, herritarrei horrek ez ziela axola eta bestelakoak...

Handik gutxira, herriko hainbat elkartek bat egin eta Bai Udalatx! plataforma sortu zuten. Helburua da herritarrak informatzea eta proiektuari kontra egitea. Hainbat ekintza egin dituzte eta, besteak beste, sinadura bilketa egiten dabil-tza. Dagoeneko, 2.000 batu dituzte, eta horretan jarraituko dute. Gogoan izango dute enpresakoek esandakoa?

IKER BARANDIARAN



TXISTUAK SAN JUANETAKO EGITARAUARI Guraso talde batek aditzera eman digu aurtengo eta iazko San Juanetako egitarau-aldizkariaren diseinuak ez direla batere erosoak izan. "Ulergaitza iruditu zaigu, egun desberdinen programa orrialde berean, euskara eta gaztelera nahastuta... Hurrengo baterako, garbiagoa eta guztiondako erosoagoa izatea espero dugu". Bestalde, txaloak eman gura dizkiete Txatxilipurdikoei, Eguzki Laru eguna antolatzeagatik. "Eske-rrak, elkarteari eta begirale guztiei, eta urte askotarako".

ASTEKODATUA

2.000

SINADURA BATU DITUZTE ORAINGOZ UDALATXEN ALDE

Bai Udalatx! plataformak hainbat ekintza antolatu ditu Udalatx-ten egiten dabil-tzan zulaketaren kontra. Bihar, zapatua, egingo dituzten mendi martxez gain, sinadurak batzen dabil-tza. Irailera arte ekingo diote lan horri eta dagoeneko 2.000 batu dituzte.



Amazonas

Oraindik gelditzen dira izarrak Amazonasko zerumuga berdean. Laurehun bat dira bizi iraupen zaila duten nazio herri desberdinak: Kichwa, Shuar, Achuar, Huaorani, Siona, Secoya, Záparo, Mkiritare, Yanomani, Bororó, Tapuya, Mundurucu, Ticuna eta abar. Hauek osatzen dute, oi-haneko bionaitza-sun ekologikoari moldatuz, Amazonasko kultura aniztasuna; esklabo beltz aske horiek gauzatutako palenke eta kilonboak ahaztu gabe. Askoz ugaria-goak eta boteretsuagoak izan ziren Inken garaian. Baina hemen kapitalismoaren prozesu historikoak aniztasun biologiko eta kulturalaren aurka eraman-dako eta daraman gudaren ondorioak ditugu. Espainiako eta Portugaleko prozesu kolonia-letan gauzatutako sarraskiaren ondorioz, 1.500 izar-kultura itzali zituzten.

Hazienda handiek, urre mehatzek eta kautxeroek odollezko letrak idatzi zituzten

hemeretzigarren gizaldian. Petrolio enpresen talde arma-tuek, eliza desberdinek eta moneta ekonomiek gelditzen zirenei eraso egin zieten hogeiga-rren gizaldian. Orain, XX. gizaldian, kapitalismoaren hedapen prozesuak, mikroorga-nismo, landare, abere eta

"Kapitalismoaren hedapen prozesuak mikroorganismo, landare, abere eta pertsonen bizitza merkantzia bihurtu du"

pertsonen zelulatan dagoen bizitza merkantzia bihurtu dute. Nekazal eta indigenen komunita-teek horri buruz daukaten ezagutza pribatizatuta eta eskuratuta. Eta Amazonas da, oraindik ere, mundu-ko birikia izateaz gain, munduko biodibertsitatearen gordeleku garrantzitsuenetari-ko bat. Orain Plan Kolonbia, AEBetako merkatal hitzarmen askea, ALCA eta abarren bitartez, enpresa multinazional handiak dira XXI. gizaldiaren harrapakinak.

Denok ahotan erabilitako gisa garapen sostengarriak indigena eta bestelako munduen arteko hitzarmen berria eskatzen du. Prozesu historikoaren muinetara jo behar dugu.

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila




Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



ARRASATE PRESS

"Serio ibiltzen bada, publizitate ona egingo digu; baina egin dituenak errepikatzen baditu, itxura kaskarra erakutsiko dugu".

KIROLAK/ Mikel Goñi eta Aitzol Lazkano arrasatearra taldekide dira Ordago enpresan

"Serio ibiltzen bada, enpresari publizitatea egingo dio Mikel Goñik"

XABIER URTZELAI

Aitzol Lazkanok Ordago enpresan jokatzeko du, eta joan den egubakoitzetik taldekide berria du: Mikel Goñi. Pilotari nafarrak martitzenean egin zuen prentsurrekoa, eta kazetari asko elkartu ziren Durangon. Daukan taldekide berriaren gainean egin digu berba Lazkanok.

"Egia esateko, kuriozoso da Mikel Goñi taldean izatea. Gustura jokatu nuke bere kontra, eta baita berarekin ere. Oraindik ez naiz berarekin egon; egia esateko, asteburu izaten ditugu partiduak, eta egia esan, gutxitan elkartzen gara taldekide guztiak entrenamendu saioak egiteko. Baina, udan zehar jaialdiren bat baino gehiagotara joan beharko dugu elkarrekin, eta egia da nahiko berezia izango dela".

Fitzaketa horrek enpresan izango duen eraginaren gainean galdetu diogu: "Argi dago publizitate handia egingo digula. Jarraitzaile asko ditu, eta jendeak Mikel Goñi pilotalekuan

ikusitako gura du. Serio ibiltzen bada, publizitate ona izango da enpresarendako. Hori bai, behin baino gehiagotan egin dituenak errepikatzen baditu, enpresari mesede txikia egingo dio".

AZKENEKO AUKERA

Mikel Goñiri dagokionez, Aspek dagoeneko ez du Oronozkoaren gainean ezer jakin gura, eta azkeneko hilabeteotan argi geratu da hori. Eta, badirudi Asegarece ere ez dagoela interesatuta; momentuz behintzat, ez. Frontisekin gorabeheraren bat izan du, baina Ordago enpresak eman dio aukera: "Esango nuke daukan azken aukera dela, eta Ordagok eman dion aukera hori aprobetxatzen ez badu, ez dakit zer

"Oraindik ez dakit asteburuan zer egingo dudan; Kataluniara ez banoa, Leonera"

egingo duen. Alde horretatik, joan den astean jokatu zuen lehenengo norgehiagoka gurekin, eta taldekideek esan didate oso urdu-ri ibili zela. Egia esateko, ez dut gorputzaldi onean ikusten, gizen dago. Profesionalekin ez luke norgehiagoka bat amaituko; orain izango dituen jaialdiak aprobetxatu beharko lituzke sasoian jartzeko".

UDA JAIALDIZ BETETA

Goñi II.ak lau hilabeterako kontratua sinatu du Ordagorekin, eta tarte horretan estatu osoan antolatzen diren pilota jaialdietan izango da: "Asteburuan Kataluniara doa, Azkunerekin eta Xabier Uberarekin batera. Ni ordezko moduan nago, ez dakit joango naizen; baina Kataluniara joaten ez banaiz Leonen dagoen beste jaialdi batean jokatuko dut".

Datozen hilabeteen gainean galdetu diogu Lazkanori: "Udan jaialdi mordoia izango ditugu, eta abuztuan ere horretan ibiliko naiz buru-belarri. Horrela igaroko ditut oporrak, nahiz eta egun batzuk izango ditugun libre".

Astlehenean egingo dute Mondraren aurkezpena

X.U.

Aldaketa nabarmenak izango dira datorren denboraldiari begira. Hasteko, taldeak zuzendaritza berria estreinatu du, eta baita entrenatzaile berria ere. Jokalariei dagokionez ere egingo dira aldaketak.


Astlehenean, 18:30ean aurkeztuko ditu Mondrak 2005/06 denboraldiko futbol taldeak. Eta, ekitaldi horrek balioko du zuzendaritza talde berria ere ezagutzeko. Izan ere, taldea hartu zutenetik ez dute inolako aurkezpenik egin. Gurago izan dute zarata handi barik lanean hasi, datorren denboraldia prestatzen badago eta zer egin.

Eta zuzendaritzak denboraldia amaitu berri hartu duen lehe-

nengo erabakietako bat izan da entrenatzailea aldatzea. Josu Zubiak urteak egin ditu Mondran, maila txikietatik hasita. Eta, erregional mailatik preferente mailara igo zuen taldea. Zuzendaritzak uste du Zubiak ziklo bat bete duela, eta aldatzea komeni zela. Horrek ez du kentzen Zubiari egindako lanagatik dagokion errekonozimendua ematea.

Igor Gordobil arrasatearra izango da Mondraren entrenatzaile berria, eta Andoni Azkargorta antzuolarra izango du lagun; bikote horrek ondo baino hobeto ezagutzen du kategoria hori, eta baita Arrasateko taldea ere. Zorte onena, bie!

Amaitzeko, konponduta geratu dira zuzendaritzak Udalarekin zituen arazoak.



Euskadiko Openeko txapelkun, bigarrenez


Euskadiko Opena amaitzeko lasterketa bakarra geratzen da, asteburuan Mutriku jokatu dutena. Baina dagoeneko Jose Angel Lopez de Ikaiak irabazi du Master 40 kategoriako txapelketa. Joan den astean Bastidan lehenengo postuan sailkatu zen, eta orduan eskuratu zituen txapelketa irabazteko behar zituen puntuak. Joan den urtean bigarren izan zen, eta orain dela bi urte lehena. Orain, uztailaren 16an Pontevedran egingo duten Espainiako Txapelketa du helburu. /X.U.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



MODAYANG

Erropa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



Aurten ere hainbat lagun joan dira Loixe elkartearen erakusketa ikustera, ikusgarria da-eta.

ZERAMIKA/ Zeramikazko 100 bat lan batu dituzte ikasleek

Loixe zeramika elkarteak erakusketa jarri du Monterronen

IKER BARANDIARAN

Joan den urteko erakusketak jaso zuen harrerarekin oso gustura gelditu ziren, eta hilaren 15era arte erakusketa egingo dute Monterronen. Ikastaroetako ikasleen lanak batu dituzte, eta guztira 100 bat pieza jarri dituzte erakusgai.

Loixe elkarteak hainbat urte darma zeramika lantzen. Iaz erakusketa egitea erabaki zuten eta jasotako harrerak bultzatuta, aurten ekimena errepikatzea erabaki dute. Ikasturtean umeei eta nagusiei eskolak ematen dizkie-

te, eta horien guztien lanak batu dituzte Monterronen. 20 bat ikasle dituzte, eta bakoitzak bost bat lan erakutsiko ditu. Horien artean, gauza funtzionalak, apaingarriak eta abar batu dituzte: lanparak, pitxerrak, jokoak...

IKASLEAK GEHIAGO MOTIBATZEA

Erakusketa jartzeak hainbat helburu ditu elkartearen lagunendako: "Lehenik eta behin, ikasleak motibatu egin gura ditugu. Horrez gain, gurasoek eta bestelako herritarrek zeramikarekin zer gauza egin daitezkeen ikusteko aukera izango dute. Hori guztia garrantzitsua da guretzat. Azken

finean, gure lokalean egiten duguna kalera ateratzen dugu", azaldu zigun Alaitz Kristobalek.

URRIAN, IKASTARO GEHIAGO

Loixe elkartearen lagunak Nafarroa etorbidean elkartzen dira, INEMen parean. Elkarteak 20 bat bazkide ditu. Horrez gain, hainbat ikastaro ematen dizkiete helduei eta umeei. Irailean zabalduko dute izenematea, eta urrian hasiko dituzte eskolak.

Bazkideek lokala eta hango erremintak gura dutenean erabiltzeko aukera izateaz gain, hainbat irteera eta tailer egiten dituzte urtean.

Arte garaikidea Harresi aretoan, Nerea Bilbao margolariaren eskutik

I.B.

Nerea Bilbao arrasatearrak erakusketa jarri du Harresi aretoan gaurtik, egubakoitza, hilaren 17ra arte. Arte garaikidea egiten du, eta hainbat teknika lantzen ditu: olioia, collageak, serigrafia...

Honako hau erakusketa desberdina dela esan dezakegu. Bai, behintzat, Harresi aretoan ikusten ditugunekin alderatuz. Nerea Bilbao 22 urteko arrasatearra da, eta honako hau berak bakarrik egiten duen lehenengo erakusketa da.

"Etxea margolanez beteta daukat eta etxeok askotan esan

didate lan horiek nonbaitera eramateko. Horrez gain, banuen gogoia nik egiten dudana jendearekin erakusteko, eta Arte Ederrak bukatu berri ditudanez, une aproposa dela pentsatu nuen", azaldu zigun Nereak.

ESPERIMENTATZEA GUSTUKO DU

Margotzen duenean esperimintatzea gustuko duela azaldu zigun, eta horretarako hainbat teknika erabiltzen ditu. Hain zuzen ere, Harresi aretoan 40 bat lan jarri ditu ikusgai, eta horiek egiteko hainbat teknika baliatu ditu: olioia, teknika nahasiak, collageak, serigrafia... Horrez gain, lan batzuetan, paper birziklatua hartu, busti, tindatu eta josi

egin izan ditu. "Ez naiz teknika batera bakarrik mugatzen. Aspergarria izango litzateke", azpimarratu zuen.

Horrez gain, berak sortutako irudiak hainbat lanetan ikus ditzakegu. *Transfer* sistemaren bitartez, irudi jakin bat euskarri batetik bestera pasatzen du, eta hori abiapuntu hartuta, garatu egiten du.

Harresi aretoan jarri dituen lanetako batzuek kutsu abstraktua daukate, baina Nerea ez dago guztiz ados: "Esanahia badute, beste kontu bat da ikusleek eta nik neuk gauza desberdinak ikustea, baina hori positiboa da". Bestalde, estetikari dagokionez, indarra daukate Nerearen lanek.

Datorren astean, Morauren kontzertua Ferreriasen

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Morau Ta Agotak taldeak kontzertua egingo du Ferreriasko plazaxoan, 23:00etan. AEDK antolatu du, Kultur Errotaren laguntzarekin.

Urtean AEDK eta Kultur Errotak hainbat emankizun antolatzen dituzte. Gehienak areto, antzoki eta tabernetan egiten dituzte, baina urtero uztailean Ferreriasko plazaxoa erabiltzen dute horretarako.

Datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Tolosaldeko Morau ekarriko dute Arrasatera. Morauk ibibide luzea dauka musikagintzan. 90eko hamarkada hasieran bakarlarari moduan ibiltzen zen gitarra jotzen eta abes-


ten. Ezaguna egin zen bere kantutik ironikoei esker: *Coca-cola lata bat, Ni guay naiz*, eta abar.

TALDEA OSATU ZUEN

1996an, Josi Ubeda gitarra jotzailer ezagunaren laguntzarekin *Morau* lana argitaratu zuen Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Deabruak Teilatuetan taldeko bi lagun ere batu zitzaizkion.

Bi urte geroago, abesti akustikoak idatzi eta *Kantu galduak* lan xumeagoa grabatu zuen Xabi Labaienen laguntzarekin. Musikari askok esku hartu zuten: Joxi Ubeda, Naco Goñi, Petti...

2000an Berako hainbat musikarirekin behin-behineko taldea osatu eta *Amodio domestikoak* grabatu zuen. Lagun berekin jarraitzen du eta iaz *Txukalda* lana argitaratu zuen. Kantuei indarra eman die taldeak.



GAZTELUPEKO HOTSAK

Andoni Tolosa 'Morau'-k hainbat musikari izango ditu lagun taula gainean.



I.B.

Nerea Bilbao gazteak 40 bat lan batu ditu Harresi aretoan.

BOTEPRONTUEN

Elena Hernandez

MODAYANG

XABIER URTZELAI

Maala kalien dauen Modayang dendiek bi hillebete egin berri dau. Jabie txinatarrak da. Oin dala 14 urte etorri zan hona; lelengo, jatetxie ipiñi euen Zumarragan, eta gero arropa dendie. Mondraguekue bigarren dendie da, eta Beasainen zabalduko daue beste bat.

Ze saltzen dozue Modayang dendan?

Gehixenbat arropak saltzen dou, eta horrekin batera konplementuek. Gaztiendako arropa asko daukou: frakak, kamisetak... Zapatillak eta holakuek be badaukou. Horrekin batera, talla espezialak saltzen dou, eta baitte umiendako arropak be.

Eta nundik ekarten dozue horreik arropok?

Egixe esateko, Asiatik oso gauza gutxi ekarten dou, pijamak eta holakuek. Beste dana Parisetik eta Italiatik ekarten dou.

Zelako arropie da?

Ez dau ondo neuk esatie, baiñe kalidade haundiko arropak die. Adibide moduen esango dot neuretako gauza mordue erosi dotela. Akaso, egongo die gauza batzuk ez neukenak erosiko, baiñe beste batzuk oso-oso politte die; neskendako kamisetak, adibidez. Eta prezio ona daukiela da onena. Daueneko kliente fijuek daukou, eta seiñale ona da hori.

Kaltzaue be badauketue.

Bai. Sandaliak, zapatillak, zapat... Oso kalidade onekuek die, narruzkuek, gaiñera. Alacanten egindakuek die, eta kontuen euki biher da narruzko sandaliek 20 euro inguru balixo dauela, eta narruzko zapatek 30 euro inguru.

Eta zelan hasi zara hamen lanien?

Neurekin batera lan egitten dauen neskie da Xhue, eta Bartzelonan eta Italian egon bada be, españolez oso gutxi egitten dau, eta euskeraz ba... Eta jabiek gure euen pertsona bat españolez eta euskeraz moldaketan zana, Xhuekin batera dendie aurrera atarateko.



X.U.

“Ez dau ondo neuk esatie, baiñe kalidade haundiko arropak daukou Modayangen”

Lehenau be Maddi dendan ibilli nitzen lanien; hortan, badauket esperientzia apur bat.

Zela konponketan zarie Xhue eta bixok?

Ondo, bi hillien asko ikasi dau. Daueneko nahiko ondo komuniketan gare. Hasieran, kolorien izenekin, arropen izenekin... Normala dan moduen, ondiokan be nahastu egitten da.

Ikustekue da txutxumutxuek zelakuek dien: mendiko marka ezagunek merke merke egongo ziela entzun geuen.

Bai, eta bazar bat be ipiñiko geuela... Jentiek gauza asko esaten dau, baiñe ez daukou holako mar-

“Daueneko gauza mordue erosi dot neuretako, eta kliente fijuek be badaukou; seiñale ona da hori”

karik. Elleme markiekin egitten dou lan, baiñe ez dau besterik.

Zein da laneko gauza onena?

Arropa artien gabitzela. Sei urte egin neuen zerbitzari moduen, eta oin askoz be gustorau nau.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Hamengo komertzien aldeko apostu haundixae, jaixen aldeko apostu haundixae...

Eta ze dauko Mondraguek ona?

Hamen ederto bizi gabela. Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Bi pelikula esango dot: *Viven* eta *La lista de Schindler* / *Los pilares de la tierra* / *Queen*.

NIREBIDAIAHURA/ Mainer Heriz

Guatemalara / Urtariletik apirilera arte

Eskolak ematen hilabete eta erdi ibili eta gero, bidaiatzen egin zuten beste hilabetearen kontakizuna egin digu Mainerrek: “Bidaia hura ez genuen ondo hasi; merkataritza askeko tratatua zela eta lanuzte orokorra zegoen deituta. Gainera, konturatu ginen hamaika lagunek batera bidaiatzea askotxo zela, eta banandu egin ginen. 09:00ak aldera hasiko zituzten barrikadak, eta lehenago abiatu baginen ere, ez genuen zorterik izan. Autobusak ezin zuen aurrera egin, baina gizon batek eskaini zigun bidaia furgonetan jarraitzea. Barrikadetan bi irakasle hil zituztela eta, beldurtuta geunden, baina aurrera egitea erabaki genuen. Hala iritsi ginen Mexikora”.

Txiapas aldera egin zuten: “Besteak beste, Cristobal de las Casas-en izan ginen; astebete egin genuen Mexikon, eta Guatemalara igo ginen gero. Tical hirian harrituta geratu ginen hango monumentuekin, piramide modukoak, tenpluak... Livingston-en egon ginen ondo baino hobeto. Leku arriskutsua zela esan ziguten, baina hainbat lagun egin genuen han, eta ederto zaintzen gintuzten. Nik ez dakit lagun horiek hango erregeak ziren edo zer, baina ikustekoa zen, han baino hobeto, hemen ere ez”.

Bidaia hura amaituta, Mainer eta lagunak Quetzaltenango itzuli ziren, Euskal Herri itzuli aurretik hango familiak agurtzera: “Aitortu behar dut niretako oso gogorra izan zela hura. Itzulerako bidaietan, Miamiatik Londresera egin genuen, eta gogoratzen naiz aireportuan zein gaizki egon nintzen. Itzulerakoan, lagunak ongietorri afaria egin gura zidaten, baina batere gogorik ez neukala esan nien. Etxekoak ikustearren pozik behar nuen, baina triste nengoen. Seguruena, horixe izan da bidaia haren gauzarik txarrena”.

XABIER URTZELAI



“Hango autobusetan ibiltzea egundoko esperientzia da”.

“Livingstonen lagunak egin genuen, eta ederto zaindu gintuzten”

“Hango familiak agurtzea izan zen gogorrena”

ad **Ibabe****IBABE GARAJEA**


MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATEMonte
tabernaMaalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56**BITTORI****ERRETEGIA**Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ESKLEROSI ANIZKOITZARI AURRE EGITEN, TINKO

Joan den asteburuan egin zuten Euskal Herri mailan esklerosi anizkoitzari aurre egiteko *Busti zaitez!* kanpaina. Arrasaten erantzun ona izan zuen ekimenak, eta ekimen hori antolatu dutenek eskerrak eman gura dizkiete Toki Argi elkarteko kideei. Beste behin, boluntario ibili ziren lanean, eta dagoeneko hirugarren urtea da. Joan den urteko datuekin alderatuta, aurten askoz ere erantzun hobea izan dutela azpimarratu zuten. Oso gustura zeudela esan zioten *Asteleheneko Goienkaria*-ri: "Kamiseta mordoa saldu ditugu, baina joan den urtean saldu ez genituenak ere. Gure helburua Gipuzkoan errehabilitazio zentroa egitea da. Bilbon badago horrelako bat, baina Gipuzkoan ere behar dugu beste bat".



HORRELAKO AMUARRAIN GUTXI GERATZEN DA INGURUAN

Amuarraina eskuan duela erretratu elegantea egin diote Ramon Ramilari. Bistan da amuarrain horrek merezi duela horrelako argazki bat, arrantzatu duenaren esanetan dagoeneko horrelako gutxi geratzen dira-eta. Irudietan duzuenak 1,200 kilogramo pisatu zuen. Galdetu genion Ramoni ea horrelako amuarraina non arrantzatu zuen, baina galdera inuzentea gurea, horrelakoak ez dira-eta esaten. Ondo dakigu ez dela Gipuzkoako erreketan izan, esan digun gauza bakararra Araba aldean arrantzatu duela izan da. Hori bai, horrelakoetan ez dago sekreturik: "Ez da abilezia kontua bakarrik. Gauza bati orduak eskaintzen badizkiozu, orduan lortuko dituzu emaitzak". Horrela lortu du Ramonek erreka hori topatzea, asko ibilita.



MONTE TABERNAKO TOURREKO PORRAK ERREKOR GUZTIAK GAINDITU DITU ORAINGOAN

Monte tabernak Tourraren gainean antolatu duen porrak aurten 872 lagun erakarri ditu. 26.160 euro batu dituzte. Lehen saria eramaten duenak horren %40 eramango du, beraz, 10.464 euro kobratuko ditu,

pezetatan, 1.737.024. Bigarren sariak batutakoaren %25 eramango du, hau da, 6.540 euro, milioi bat pezeta baino gehiago. Hirugarrenak 3.270 euro eta beste zazpi lagunek 654 euro bakoitzak. Opor galantak Armstrongen kontura, ala?

► Gure Kooperatibaren historiari buruzko argazki eta zinema irudiak biltzen ari gara, 50. hamarkadatik gaur egunerarte. Debagoiena nolakoa zen erakusten dituzten irudiak ere erabilgarriak izango lirateke.

Etxean Super 8, 16 mm. edo 35 mm.-tako filmerik eduki ezkerro eta gurekin kolaboratu nahi baduzu, mesedez deitu iezaguzu hurrengo telefonora:

Mikel Murgizu
943 71 91 00

Fagor Etxetresna Elektrikoak
San Andrés auzoa, 18
20500 - Arrasate

FAGOR



ELKARRIZKETA

PEDRO SALABERRI/50 URTE EGIN DITU ABADE

“Abadeek babes handia eman genien euskarari eta abertzaletasunari”

IKER BARANDIARAN

Joan den domekan Pedro Salaberrri arrasatearrari omenaldia egin zioten San Juan Bataiatzailearen elizan. 50 urte egin ditu abade. Aspalitik Kontzeziñoko komentuko kapilaua da, eta beste zeregin batzuk ere egiten ditu.

Orain dela 50 urte apaiztu zintuzten. Zelan gogoratzen duzu egun hori?


Gu Donostiako Santa Maria elizan ordenatu gintuzten. Beti Artzain Onaren elizan egin izan dituzte eta gurea, antza, salbuespena izan zen. Azken 10 urteotan, apaiztu ginen 26 lagunak urtero elkartzeko gara.

Hainbat urtean kanpoan ibili zinen abade.

Bai, apaiztu nintzenez Gabiriako Aztiria auzora bidali ninduten. Han 3 urte egin nituen, eta baserritarrekin oso ondo ibili nintzen. Gabiriara hileta-elizkizunetara oinez joateko nintzen, hotza edo euria egin. Aztiriatik Urretxura eramanez ninduten. 14 urte egin nituen han, eta horren ostean, Arrasatera bueltatu nintzen. Aztiriako lagunekin, batez ere, harreman estua daukat eta urtero joaten naiz jaiak ospatzera. Nik ez dut uztailearen 18a inoiz ospatzen -Francoren estatu-kolpea-, nik Aztiriako Santa Mariak ospatzen ditut. (Barre)

Urte haiek zailak izango ziren, frankismoa zela-eta?

Bai, hala da. Nik askotan esaten dut sasoi hartan eliza zela erresistentzia. Beldur handia zegoen eta abadeek babes handia eman genien euskararen, aber-



tzaletasunaren eta folkloreaken aldeko mugimenduei. Urretxun, adibidez, lehenengo ikastola katekesi moduan *mozorrotu* zuten, eta gu ginen arduradunak.

Txistularien taldea ere sortu genuen. Horrez gain, gogoan daukat Aztirian gertatutako pasarte bat: irakaslea erretiratu zenean, nik eman nituen eskolak

urtebetez. Halako baten, inspektore bat ikasgelara sartu eta eskola euskaraz ematen harraipatu ninduen. Matematika gatzeleraz irakatsiz gero, ez zidatela ulertuko azaldu nion. (Barre).

Zeintzuk dira zure eginbeharrak Arrasaten?

Nire eginbehar nagusia da Kontzeziñoko mojen komentuko kapilau-lana egitea. Horrez gain, beste ardura batzuk izan ditut: Urribarriko abadeari lagundu nion; horren ostean, San Andresko elizaren arduradun izan nintzen; eta azken 26 urteotan, abade-etxeke bulegoan nabil.

Kontzeziñoko mojak ondo ezagutzen dituzu. Zeintzuk dira euren eginkizunak?

Urte askoan josten ibili dira. Adibidez, Arrasateko elkarte gehienetako mahai-zapiak eta bestelakoak eurek egin zituzten. Ortu handia ere bazuten. Aspalitian, arropak, jostailuak eta bestelakoak batzen ibiltzen dira. Astero kamioikada bat bidaltzen dute. Jasotakoak Errumaniara, Indiarara eta Hego Amerikara bidaltzen dituzte. Klausurako mojak dira, baina gero eta gehiago irretzen dira: medikura, bankura... Gaur egun, 12 moja daude. Sasoi baten 24 izan ziren.

Badakit mendian ibiltzea eta palan jokatzeko zure zaletasun handiak izan direla.

Bai. Mendian ibiltzea oso gustuko dut, orain joan ezin naizen arren. Espainiako mendi garaie-netan egonda nago, baita Pirinioetako gailurretan ere bai. Horrez gain, seminarioko sasoiari pilotari asko jokatzen genuen, eta apaiztu ondoren palan jolasten genuen.

LABUR

Alargun batzuek pentsioa eta SOVI jasoko dituzte

APPALDEK, Debagoieneko aurre-erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak, aditzera eman du ibarreko hainbat alargunek pentsio handiagoa jaso ahal izango dutela. Interesatuek pentsioa jasotzen duten banketxe edo aurrezki-kutxetara jo beharko dute, eta NAREN fotokopia eraman.

Ekainaren 6an onartu zuten lege bati esker, alargunek SOVI deiturikoa kobratu ahal izango dute. SOVI da zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko sorospena. 1.800 egun lan egin duenak 1967. urtea baino lehen, eskubidea du SOVI kobratzeko 60 urte betetzean. 80ko hamarkadara arte, osagarriak ziren eskubide hori eta alargun pentsioa. Baina, hamarkada hartan kendu egin zuten. Orain, berritxo, osagarriak dira.

Abaroakoek Donostiara txangoa egingo dute

Uztailearen 19an, Abaroa erretratuen elkarteak Donostiara txangoa egingo du. Bi autobus eramango dituzte, eta Abaroa parean egin dute hitzordua. Hondarribiako aireportuan hamarretakoa egingo dute. Horren ostean, Hondarribia bisitatuko dute, eta Oiartzungo Gurutze-berri jate-txean bazkalduko dute. Izena emateko azkeneko eguna martitzena, hilaren 12a, izango da. Txartelak hilaren 18an banatuko dituzte.

Bestalde, Abaroako arduradunek aditzera eman dute irailean Bartzelonara joateko lekua gelditzen dela. Interesatuek jo bulegora.

**URONDO**


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

*PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.*

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

*Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia
Lekuz aldatu gara!*

Goiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel./Faxe: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

EZETZASMATU



Non dago armarriak dituen argazkiko etxea?
Arrastoa: plaza biren artean dago, herriaren erdialde inguruan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Principe txokolatezko gailetak
250 g-ko paketea

0,79€ 131 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDURNE AGIRIANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Edurne!
Galderen erantzun zuzena:
Axeriko zubia.

ARRASATEKO HISTORIA

Zinema Arrasatera iritsi zeneko kontakizuna

'ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO...'

Joan den mende hasieran, zinema iritsi zen Arrasatera. Herritarrek ondo asko hartu zuten haren etorrera. Hala, Zazpigarren Artearen hastapenak Arrasaten zela izan ziren jakin nahian, *Arrasate, langileek eraikitako herria* liburura jo dugu. Hara zer dioen:

"Langileek zineman uzten zuten soldataren zatitxo bat.

Arrasaten eman zen lehen filma mutua azpigitulurik gabea eta ibiltaria izan zen eta udaletxeko areto nagusian eman zuten. Ibañezek -*Txomin Txiki*-k lehendik ikusia zuen eta filmeko gorabeheren berri ematen zien hara bildutakoei. Macario Zabartek Erdiko kalean zituen etxabeetan ere eman ziren filmak noizean behin.

Lehenbiziko zinema-aretoa Olarte kalean ireki zuten. Benito Abarrategiren familiarena zen aretoa, baina *Mardoren zinema* izenez ezagutzen zen herrian. Hango emanaldiak ere mutuak ziren, baina azpigituluak zituzten eta jende guztiak ozen irakurtzen zituen, zalaparta handia sortuz.

'Ezagutu izan dudan lehenengoetariko zinema *Mardo-*

Teatro-Cine Bedia
MONDRAGON

Domingo 12 de Octubre de 1930

A las 5 y 8 y media

Inauguración oficial del Salón

Inauguración de la temporada

Exito clamoroso del genial actor **EMIL JANNINGS**

en la más grandiosa producción cinematográfica sonora

EL PATRIOTA

PRECIOS:

Palco con 6 entradas	12,00 Ptas.
Bulaca de patio	1,50 "
de anfiteatro	1,50 "

Kristobal Bediaren zinemaren iragarki bat; etxe ondoko lurretan eraiki zuen hark zinema.



'ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO HERRIA'

rena zen, errekarra begira zegoen beheko solairu bat zen eta han bakeroenak botatzen zituzten. 20-25 zentimo kostatzen zituen. *Edi el Polo* eta halako filmak ematen zituzten' (Agustin Azkoaga).

Zine soinuaren lehen emanaldiak zinema berrian eman

*Zine soinuaren lehen saiok
Maalako Okendo etxeko trinketean eman zituzten*

zituzten: Maalako Errebalako Okendo etxean zegoen trinketezko zinean, alegia. Trinketak hainbat erabilera zituen: frontoi bezala erabiltzen zen, dantzaldiak antolatzen zituzten tarteka eta larunbat gauean eta igandean filmak ematen zituzten. Zinema-

emanaldia zegoenean, oihal zuri handi bat eta aulki tolesgarriak jartzen zituzten. Aulkiak jartzen zituzten gazteek dohainik ikusten zuten filma.

'Lehenengo egon zan Trinketia: han frontoia auen eta zinia ipinten gauean. Lagun batekin ipini sillak larunbaterako edo domekarako eta astelehenian berirro kendu sillak. Zien Elmako fabrikakuak. Han egon nintzen takillan. Gero Kristobal Bediak barrixa ein zauen Roneoko etxietan, frontoi aurrekaldian. Han ederra euki auien zinia konpontzeagatik'. (X)

1926 urte inguruan lehiazale bat agertu zen; Kristobal Bediaren zinema. Bere etxe ondoko lurretan eraiki zuen zinema, Zal-dibar frontoiaren aurrean. Zine hura trinketekoa baino erosoagoa eta hobea zenez, lehia handia sortu zen bien artean. Trinketa azkenean sozialisten egoitza bihurtu zen 1931n, eta zineko nagusiek beste areto bat zabaldu zuten Resusta kalean (Iturriotz kalea gaur egun), *zine popularra* izenez ezagutzen zena.

Bi aretoek ere estreinaldi garrantzitsuenak ematen zituzten ikusleak erakartzeko. Bedia zinemak atek itxi zituen gerra hasi baino lehentxeago".



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko eskusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelu honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baldintzak: banatzaileen sarerentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarrizko eskuragarri, irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra GTC. Kontsumoa (l/100km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a

388. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Iralabarriko bizilagunek sinadurak batu dituzte Lucio Garai lantegiko zaraten aurka

MIRARI ALTUBE

Iralabarri plazako bizilagunak kezu dira. Industrialdean dagoen Lucio Garai galdategiak ez die uzten lo egiten askori, eta gainera, tximiniek botatzen duten kea etxebizitzaren aurrealdea zikintzen hasi da. Hori dela eta, sinadurak batu eta Udalari aurkeztu dizkiote.

Sei hilabete baino ez dituzte Iralabarri plazako lehen etxebizitzek, eta dagoeneko bizilagunak ez daude gustura. Udalari bizilagunen ongizatea zain dezala eskatzen diote.

UDALARI ESKAERA

Ehun sinadura inguru batu dituzte Iralabarriko bizilagunak, eta udaletxean aurkeztu. 50 metro eskasera daukaten Lucio Garai galdategiak gauetan ez diela lorik egiten uzten diote, eta tximiniek botatzen duten hautsak etxeen aurrealdeak zikintzen dizkietela. Bizilagunen esanetan, Udalak ez du bere gain hartu gura arazoa, eta ez die erantzun zuzenik eman. Hori dela eta, eta batzuk lorik ezin eginda oso gaizki pasatzen dabiltzala ikusita, Arartekoarengana jo dute. Hark uste zutena berretsi die, Udalak hartu behar dituela zaraten kontra-



Iralabarri plazako hainbat etxebizitza Lucio Garai galdategitik 50 metro eskasera daude.

ko neurriak, hain zuzen ere. Horren guztiorren aurrean, bizilagunak eskaera zuzena egin gura diote Udalari, esanaz, bizitzeko baimena eman badie orain herriar horien ongizatea zaindu behar duela. Hainbat abokaturi eskatu diote iritzia, eta beldur dira arazoa atzeratzen joango ote den. Horregatik sinadura batzea bes-

te auzo batzuetara zabalduko dute, Belorrietara esaterako.

LANEAN DABIL UDALA

Udaleko Hirigintza Saila dabil jarraipena egiten arazoari, eta arduradunen esanetan ez dabil tza zuzen bizilagunak. Iralabarri plazan bizitzeko baimena ematearekin batera eskatu zioten Lucio

Garai galdategiari 22:00etatik aurrera ez ateratzeko 60 dezibeliotik gorako zaratarik. Hala beteko litzateke legeak dioena, hau da, 22:00ak eta 08:00ak bitartean etxe barruan ezin dela egon 30 dezibeliotik gorako zaratarik.

Hori bakarrik ez, galdategiaren aktibitate proiektua oso-osorik aurkezteko eskatu zion Uda-

lak, azken urteotan haziz joan delako lantegia. Ekainaren erdialdean aurkeztu zuen hori, eta oraindik ikusgai dago udaletxean alegazioak aurkezteko. Udalak berak inguruko bizilagun eta enpresa batzuei egin zien dei ikusi gura bazuten. Alegazioak aurkezteko epea bukatutakoan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera joango da proiektua, eta bertako teknikariek esango diete zeintzuk diren galdategian egin behar dituzten zuzenketa guztiak legea bete dezaten. Gero Udalaren lana izango da zuzenketa egin dituzten eta legea betetzen duten zaintzea. Horrek guztiak denbora beharko du, baina ez lau edo bost hilabete baino gehiago, Hirigintzako arduradunen esanetan.

JARRAIPENA EGITEN

Zaratak direla eta kezkatuta dago Udala, eta neurri zorrotzagoak hartu behar direla esan bitartean, adituak jarraipena egiten dabil tza lantegiari. Hala, aste honetan ibili dira udaltzainak 22:00etatik aurrera ateratzen dituzten zaratak zaintzen, hau da, atek itxita lan egiten duten ikusten. Txostena gertatuko dute, eta horren arabera ezarri beharreko neurriak hartuko dituzte la diote Hirigintza Sailekoek.

Hasi dira ume zein helduendako filmak ematen herriko plazan

M.A.

Martitzenean hasi ziren filmak ematen herriko plazan. Martitzen emango dituztenak umeendako izango dira eta egubakoitzetakoak helduendako. Uztaileko gauak girotuko dizkigu zinemaldiak.

Iaz eskaini zuen lehenengo aldiz Kultura Sailak zinemaldia herriko plazan, eta aurten jarraipena izango du. Iaz baino film gehiago emango dituzte, zortzi guzti-

ra, erdiak umeendako eta beste erdiak nagusiendako; guztiak 22:30ean.

EUSKARAZ GUTXI

Umeendako berandutxo dela diote batzuek, baina Anabel Diez Kultura teknikariaren esanetan, aurretik ezin da ez dagoelako erabat ilun. "Euskaraz izan daitezen guztiak gurako genduke, baina DVD oso gutxi daude. Horregatik bi bakarrik lortu ditugu. Bestelakoan nahiko film berriak aukeratzen saiatu gara,

eta ikusleek gustura ikusiko dituztelakoan gaude", gaineratu du Anabelek.

EMANGO DITUZTEN FILMAK

Gaur, egubakoitza, *Mar Adentro* filma emango dute; martitzenean, hilak 12, *Shrek 2*; hilaren 15ean, *Los chicos del coro*; hilaren 19an, *Unibertsolariak munduaren ertzaren bila*; hilaren 22an, *Diarios de motocicleta*; hilaren 26an, *Los Increibles*, eta bukatzeko hilaren 29an, *Crimen Fectivo*.



Los Increibles filma emango dute hilaren 26an, 22:30ean, herriko plazan.

ELKARRIZKETA

YERA SANCHEZ/SEXMETRAIA LEHIAKETAN SARIA IRABAZI DU

“Emakume baten gorputza irudikatu nuen boligrafoz, eta mugimendua eman atalei”

M.A.

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatutako Sexmetraia lehiaketan saria irabazi du 23 urteko aretxabaletarrak. Marrazki bizidunekin egindako film laburra aurkeztu zuen, eta Sexologia Euskaraz saria eman diote.

Zela bururatu zitzaizun lehiaketara aurkeztea?

Oraintxe bukatu ditut Arte Ederretako ikasketak. Ikus-entzuzko ikasgaia daukagu bertan, eta animaziozko irakasleak animatu gintuen gelakideok. Hala ere, oso lanpetuta ibili gara eta neuk bakarrik bukatu nuen lana.

Zelakoa da filma?

Boligrafoz egindako marrazki bizidunak dira. Emakume baten gorputza irudikatu nuen eta mugimendua eman nien atalei. Hasieran eta bukaeran neu agertzen naiz marrazten.

Gaiak ez zintuen beldurtu?

Ez, gelakide guztion artean hasi ginen egiten, taldeko lan gisa, eta natural atera zitzaigun.

Marrazki asko egin behar-ko zenituen, ez?

Bai, izugarri. Segundoko 12 irudi behar dira, eta filmak bi minutu ditu guztira; hortik atera kontuak.

Lehenengo aldiz egin duzu halako film bat?

Aurretik ere eginda daukat beste lantxo bat marrazki bizidunekin. Bihotz Bakartien Klubak antolatutako *Arrakalak* emanaldian, poesia, musika eta irudiak bateratzen dituzte, eta irudi horiek nireak dira.

Hortaz, gustuko duzu animazioa...

Bai, oso gustuko. Begoña Vitorio izan dut irakasle, Goya bat irabazi zuen harearekin egindako animaziozko filma batekin. Animazioarekiko zaletasuna sortu dit, eta zela egin lan eta produzitu erakutsi digu. Gurako nuke nik neuk ere horrela lan egin.



M.A.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 9
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22
DOMEKA, 10
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

- OROKORRAK**
- Almen 943 71 49 07
 - ARETXAGAZETA 943 79 86 21
 - Faxa 943 77 18 54
 - Basoko 943 77 09 81
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
 - Industrialdea 943 79 62 80
 - Institutua 943 79 79 00
 - Kirol etxea 943 71 26 28
 - Kultura etxea 943 71 10 27
 - Gazteria saila 943 71 10 27
 - Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
 - Kurtzebarri BHL 943 79 57 40
 - KZGunea 934 79 94 44
 - Liburutegia 943 71 18 62
 - Loramendi EE 943 77 09 70
 - Ludoteka 943 79 05 81
 - Mankomunitatea 943 79 30 90
 - Murrubio ME 943 79 93 74
 - Musika Eskola 943 79 36 50
 - Osasun etxea 943 71 19 59
 - Otalora 943 71 24 06
 - Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
 - Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
 - Postetxea 943 79 28 31
 - Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
 - Taxi geltokia 943 77 12 64
 - Udal Bulegoak 943 71 18 62
 - Udalzaingoa 943 71 18 63
 - Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

- SOS Delak 112
- Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaizta 943 79 71 99
- Gurutze Gorría 943 76 55 76
- Larrialdik 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 20:00
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: ARENTZA
Domeketan: 12:30.

MENDIOLA
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 11:30.



Gustura hasi dira Udaleku Irekietan ume zein gazteak

Astelehenean hasi zituzten Udaleku Irekiak, eta plaza ume zein gaztetxo bete zen, 205 guztira. Eguraldi kaskarra egin zien orduan, baina asteak aurrera egin ahala hobera egin du. Hala, atzo, eguna, giro alaietan ospatu zuten San Fermin eguna, dagoeneko udalekuek ospakizun klasikoa. Horrez gain, Landara eta inguruko igerilekuek irteerak, eskulanak eta jokoak egingo dituzte; baita txangoa ere hilaren 21ean. / M.A.

LABUR

San Kristobal jaiak bihar eta etzi Larrino auzoan

San Kristobal eguna ospatuko dute Larrino auzoan aste bukaeran. Bihar, zapatua, I. Mus Txapelketa egingo dute San Kristobal elkartearen 16:30ean, eta 18:00etan umeendako jokoak egingo dira. Bukatutakoan txokolata eskainiko diete ume zein nagusiei, eta 21:00etan, afaria izango dute elkartearen bazkideek. Domekan, San Kristobal eguna, meza nagusia esango dute 12:30ean, eta horren ostean luntxa eskainiko diete hurreraturako guztiei.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

J.J. IRURE
ITURRALDE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Bigarren erregionaleko eta areto futboleko taldeak sortuko ditu UDAk

M.A.

Datorren denboraldia aurkeztu zuen Aretxabaleta Kirol Elkartek, UDAk, joan zen egubakoitzean. Bigarren erregionaleko eta areto futboleko taldea egitea, mendi bizikleta proba antolatzea eta Elizabarriko iturria konpontzea daude proiektuen artean.

Batzar orokorra egin zuen joan zen egubakoitzean Aretxabaleta Kirol Elkartek. Pasatako denboraldiari gainbegiratu egin zioten, eta hurrengoa aurkeztu.

DENBORALDI ONA

Pozik azaldu zen UDAko zuzendaritza batzordea pasatako denboraldiarekin. Futboleko talde guztiak eutsi diote mailari, pilotan emaitza onak izan dituzte orokorrean, txirringarritari dagokionez lau lasterketa antolatzen

dituzte eta mendiaren kasuan Leixargarateko txabola konpontzen hasi dira. "Kirol emaitzez gain hainbat helburu bete ditugu: Udalarekin bost urterako hitzarmena sinatu dugu, urtarrilean estatutuak berriro genituen eta kirolarien eta zuzendaritzako kideen lanak eskertzeko sistema ezarri genuen", dio Jokin Antxia presidentek. "Gainera, futbol zelaiko taberna berri egin dugu, Realarekin hitzarmena luzatu eta eskola kirolarekin genituen harremanak sendotu".

"Elkarteari egonkortasuna ematea izango da gure helburu nagusia"

PROIEKTU BERRIAK

Datorren denboraldiari begira hainbat proposamen aurkeztu zituzten. Futbolari dagokionez, bigarren erregionaleko taldea sortu gura dute, eta areto futboleko senior mailako taldea. Urri aldera mendi bizikletako proba bat antolatzeko asmoa azaldu zuten, eta Elizabarriko iturria konpontzeko nahia. Pilotari dagokionez Debarroko Txapelketa antolatu behar dute datorren urtean, eta karatean 24 neska-mutiko arituko dira.

"Emaitzei dagokionez ez daukagu helburu berezirik, mailari eustea. Elkarteari egonkortasuna ematea izango da gure helburu nagusia", dio Jokinek, "eta horretarako gurasoak inplikatu, enpresetatik diru sarrerak lortu, entrenatzaileak bilatzeko bideak jorratu, eskola kirola bultzatu eta beste horrenbeste lan ditugu egiteko".



Astehenean hasiko da preferenteko futbol taldea entrenamendu saioetan.

ERRETRATUZAHARRA

San Fermin eguna ospatzera Iruñera

San Fermin jaietan dabilta Iruñean, eta guretik ere bat baino gehiago joango da. Orain bakarrik ez, lehen ere joaten ziren, eta horren seinale dugu orain dela 46 urte San Fermin egunean ateratako erretratua.

Goizeko lauretan atera ziren Aretxabaletatik, *seisziertosean*, Kepa Errasti, Arantxa Amozarrain, Floren Agirre eta Markeliñe Mendieta. Izugarritzko lainoa topatu zuten Gatzagan eta oinez joan behar izan zuen Florennek gidariari laguntzeko. Hala ere, txokolata beroa txurroekin hartu ostean,

entzierroa ikusteko denboraz heldu ziren. "Oso giro polita zegoen Iruñean eta nekatu barik ibili ginen dantzan; bertako koadrilengana hurreratzeko nintzen ni euren giro alai bizi guran", dio Markeliñek. Berakatz sorta piloa erosita itzuli zen laukotea ilunkaran etxera. Eta bueltan ere izan zuten abentura; izan ere, Altsasun Gasteizerantz hartu beharrean Tolosarantz egin zuten eta Berastegin agertu ziren. 21:30ak baziren etxean agertu zirenerako.

Argazkia: Markeliñe Mendieta



IAUSORO OSTATUA
Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otolora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



ANDRA
MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Mobiliario ARENZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07 ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu pelikulak emutie plazan uztaillien? Beste ezer gureko zeuke?



FERNANDO BERRIZBEITIA
Langillie



MARI OLIVARES
Langillie



ALBERTO ARENAZA
Langillie



MIRIAM DURAN
Ikaslie



RUFINO OSINAGA
Langillie



MARI LUZ RUS
Langillie

Oso ondo, baiñe umiendako 10:30ek berandu xamar pentsetan jat. Pelikulei dagokixenez onak dielakuen nau; akaso, Pirritx eta Porrotx txikiñendako da, eta berandutxo dauz.

Ondo, baiñe umiendako berandutxo da, ez? 21:00etan hobeto egongo litzake. Ekin-tza gehixau egon biherko leuke; musikie nausixendako, eta paillazuek edo antzerkixe umiendako.

Ondo, kontuen hartute urte guztixen ez dauela zinerik gure herrixen, ondo dau. Zer dauen ondo jakin barik zeregiñe badauela herrixen esango neuke, interesa daukonak topetan dittu.

Oso ondo, dibertiduteko eta ondo pasetako dan guztixe edarto dau, bestela ez daukou ezer herrixen. Gaztiendako gauza gehixau egon biherko leuke, ikas-taruek adibidez.

Ondo, oso ondo ikusten dot. Gaztiak zerbait falta dauela pentsetan dot, zer ez dakit, baiñe zeozer bai. Gaiñera, uztaillie oso hil egokixe da ekintza gehixau antolaketako.

Oso ondo, denpora librera-ko antolaketan dauiena ondo dator. Neri dantzie asko gustetan jat; hortan, musikie jarriko baleue ni neu asko poztuko nitzake; hala eta be, edozer gauza dator ondo.


TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK HABIAK ERREKAN Uda aurrera doa, eta gure errekan, Deba errekan, ur-oiloen habiak agertu zaizkigu. Gogoan dute batzuek zein garbi egoten zen ura garai baten, eta gogoan dugu denok zein zikin zegoen oraintsu. Sinistu gura dugu gero eta garbiago dagoela, gero eta ahate eta ur-oilo gehiago izango ditugula, eta zergatik ez baita arrainak ere. Lehenengo pausoak ote? / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

50 zutabe txiki jarri zituen Udalak Durana kalean



Oinezkoek izan arren lehentasuna automobil asko egoten zen aparkatuta Durana kalean. Hala, 50 zutabe jartzea erabaki zuen Udalak, eta ordutik hona daude jarrita. 9.000 euroko aurrekontua izan zuten. Plaza parekoak kendu egin daitezke autoak pasa behar dutenerako, gainerakoak ez.

ASTEKODATUA

28

MARGOLAN DAUDE IKUSGAI UDALETXE ZAHARREAN

Herriko margolari gaztetxoek margolanak jarri dituzte ikusgai udaletxe zaharrean; 28 guztira. Aste guztian egongo dira 18:00etatik 20:00etara bitartean eta zapa-tuan 12:00etatik 14:00etara.

BESTEKEESANA


“Etorrizunean galduko diren lanpostuak orekatzeko aktibitate berriak sortu behar dira eta guk lau berri

jarri ditugu martxan. Energia berriztatzaileak, telekomunikazio-rako osagai elektronikoak, aeronautika eta osasuna. (...)

Hirigintza garapena oso txarra izan da. Goi mailako kualifikazioko lanpostuak sortzeaz ari garenean arazoa da gaur egungo egoera errepikatuko dela: lanean Arrasaten, baina kanpoan bizi izatea. Espekulazioak eraginda akats larria egin dugu: herriak hiri bihurtu nahi izan ditugu. Hainbeste mendirekin ez zegoela aukerarik, baina Suitzan konpondu egin zuten; jakina, han ez zuten hainbesteko espekulaziorik egingo. Arrasatek Eibar imitatu nahi izan du eta Eibarrek, berriaz, Bilbo.

JESUS CATANIA
‘Asteleheneko Goienkaria’/05-07-08

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Alardeak

1996ko Uztailak 1. Ospitalean, nire lehen alabaren jaiotzaren zain nengoela (zorionak Amaiur!), bezperan Irunen izandako alardearen berri irakurri nuen egunkarian. Matxismo, intolerantzia eta bazterkeriaren alardea, hain zuzen ere.

Lehenengoz nuen arazo horien berri (“año cero” deitzen diote urte horri diskriminazioaren aldeko web gune guztiz erdaldun batean), eta ez dakit pasa diren 9 urteetan gauzak asko aldatu diren.

Egia da epaitegi eta hainbat instituzioen partez, aldeko ebazpen eta aldarrikapenak izan direla, baina gehienak hitz hutsetan geratu direlakoan nago. Azken “berri ona”, Gasteizko parlamentuak onartu zuen berdintasunaren legea izan zen. Baina joan den astekoa ikusirik, zalantzak ditut lege horren benetako balioari buruz. Hauteskundeetan alderdiek zerrenda paritarioak aurkez ditzaten bakarrik balio al du? Gobernu bileretan ar beste eme egon dadin besterik

ez? Gobernuak ez du ahalmenik bere legeak betearazteko, ala borondatea da ez duena? Izan ere, Gasteizen lege horren alde egin duten alderdien ordezkariak, ez dute urratsik txikiena ere eman Irunen zein Hondarribian diskriminazioaz bukatzeko. Azken astean bertan Irungo al-

“Zer gertatuko litzateke euskara ez dakitenak baztertuko balituzte alardeetatik?”

kateak, alarde baztertzailakoei baino ez zien harrera egin. Erasoan aurrean ertzaintzak izan zuen jokaeraz ere zer esan ugari egon daiteke.

Diskriminazioaren aldekoek, zehaztasun historikoa aipatzen dute jarrera justifikatu nahian.

Alardeek irudikatzen duten garaian, emakumeek ez ei zuten gerran soldadu parte hartzen; beraz, desegokia izango ei litzateke gaur egun horrela aritzea. Aitzkia ontzat emanez gero, galdetu nahi nuke zein zen hizkuntza nagusia Irun eta Hondarribian sasoi horietan. Euskara? Hori horrela, zer gertatuko litzateke euskara ez dakitenak baztertuko balituzte alardeetatik?

Gerizpe on bat topatu, uda bero ei dator eta!

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 216. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otorlora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udalekuetako 175 ume eta gaztetxok udalerrria girotuko dute datozen asteotan

IKER BARANDIARAN

Astelehenean hasi ziren uztailako udaleku irekiak. Hilaren 22ra arte, 175 ume eta gaztetxo ibiliko dira goizez eta arratsaldez herriko bazterrak girotzen. Aurten ez dituzte eskolako lokalak erabiliko, eta ekintzak gehientsuenak kalean eta inguruetan egingo dituzte.

Uztailak eguraldi ona ekartzen du, eta eguraldi onak kalean ibiltzeko gogo handiagoa. Are gehiago, opor usaina izaten da hilabete honetan. Horretan zeresan handia du ume eta gaztetxoek oporrak izatea. Egun osoan jai izanda, kalean ibiltzen dira uneoro. Txikienei uztailaren aisialdirako aukerak emateko, urtero-urtero udalekuak egiten dituzte herrian.

UMEK ETA GURASOEK, ESKERTU

Udalak antolatzen ditu, eta aurten gutxienez 15 urte beteko dituzte. Izan ere, oso harrera ona dute udalekuek. Aurten, adibidez, 175 umek eman dute izena. "Umek asko eskertzen dute halako aukerak izatea, bestela aspertu egiten direlako. Eta gurasoek ere ondo hartzen dute, sasoi horretan lanean ibiltzen direnez umekin egoteko denbora nahikorik ez dute lako izaten", azaldu ziguten.



Umeak udalekuak hasteko deseatzen zeuden. Poz-pozik elkartu ziren herriko plazan, astelehenean.

Izenematea ikasturtean egiten dute, eta maiatzaren erdirako itxi egin zuten. Deialdia 4 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek —Haur Hezkuntzako, eta Lehen Hezkuntzakoak— egiten diete. Aurten udalekuetan 1993 eta 2001 urteen artean jaiotakoek esku hartuko dute, eta taldeak adinaren arabera egin dituzte.

*Kalean eta mendian
egingo dituzte jolas
eta irteerak, umek
naturarekin bat
egin dezaten*

26 BEGIRALE ETA ARDURADUNAK

Eskoriatzakoak udaleku irekiak izaten dira. Hau da, ume eta gaztetxoak udalerrian ibiltzen dira, eta etxean bazkaldu eta lo egiten dute. Izan ere, ordutegia honako hau da: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

Ekimen hori Udalak antolatzen duen arren, Aritz Oianguren

eta Ainitze Luzero gazteak dira udalekuen arduradunak. Eurekin batera, 25 begirale dabilta lanean. Horrez gain, behar bereziak dituzten umeendako beste begirale bat daukate.

AURTEN, UNEORO, KANPOAN

Aritz Oianguren arduradunak aditzera eman digunez, aurtengo udalekuek aldaketa garrantzitsu bat izango dute. Orain arte ekintza gehienak Luis Ezeiza eskola barruan egiten zituzten, baina hemendik aurrera kanpoan egin gura dituzte. "Uste dugu garrantzitsua dela umeak naturarekin harremana izatea eta lehengo jokoak berreskuratzea. Horregatik, aurten, kalean eta naturan aurkituko ditugun hainbat gauzekin jolastearen aldeko ahalegina egingo dugu. Komeni da jokoak aldatzea!"

IRTEERAK EGINGO DITUZTE

Bestalde, Oianguren aditzera eman digu eguraldi txarra egiten badu, kultura etxean batu eta jolastuko dutela.

Udalerriko inguruneak bisitatzeko eta ikuskatzeko asmoa dute, baina horrez gain, hainbat irteera egingo dituzte, adinaren arabera: Landara piraguan ibiltzera, Gamarrako igerilekuetara, rokodromora, mendira....

Herritarren esku-hartze handia San Pedrotan

I.B.

Udaleko ordezkariak eta gazte batzarreko kideak oso pozik daude jaietan izan den esku-hartzearekin eta orokorrean jaietan egon den giroarekin. Are gehiago, zapatara arte luzatu dituzte jaiak.

Dagoeneko bukatu dira San Pedro jaiak, baina balantze ona egin dute antolatzaileek. Bai Udaleko Kultura Saileko ordezkariak eta baita ere gazte batzarreko

lagunek. Esku-hartzea handia izan da, eta giroa ere ez da falta izan aste osoan.

EUSKAL JAI, EGUN POLITENETAKOIA

Udal ordezkariak eta gazteek eurek diote Euskal Jai egun politenetakoa dela. Horrez gain, gazte batzarrekoak oso pozik daude San Pedroak zapatara arte luzatu dituztelako. Koadrilen eguna egin zuten, eta arratsalde eta ilunkaran oso harrera ona izan zuten kalejirak, jokoak eta kontzertuak.



Euskal Jaiaz gain, danborradak —nagusiena eta umeena— ere galdu ezinezko hitzorduak dira eskoriatzarrendako.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

4x4 AUTOEN KONTZENTRAZIOA APOTZAGAN

Bihar, zapatua, eta etzi, 4x4 autoen kontzentrazioa egingo dute Apotzagako hondakindegian. Zapatuan 15:00etan hasiko dira, eta domekan, berriz, 10:00etan.

JAIEN BALORAZIOA EGITEKO BATZORDEA, EGUAZTENEAN

Eguaztenean, hilaren 13an, San Pedroetako batzordea batuko da jaien balorazioa egiteko. Kultura etxean egingo dute, 18:00etan, eta irekia izango da. Batzordeak herritarrei gonbidapena egiten die batzarrera joan daitezkeen edo telefonoz zein bestela kezak edo iradokizunak aurkez ditzaten.

AXTROKIRENAGENDA

'ASTELEHENEN GOIENKARIA'-REN HARPIDETZA

Axtrokiko bazkideek 5,50 euroko beherapena izango dute *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidetzan. Deitu honako telefono zenbakira: 943 76 92 70.

Film emanaldiak, plazan, astean hiru egunean

IKER BARANDIARAN

Udaleko Kultura Sailak film emanaldiak egiten dihardu uztailan. Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan ematen dituzte herriko plazan, 22:15ean. Adin guztietarako izaten dira. Eguraldi txarra egingo balu, hurrengo egunean botako lukete.

Dagoeneko ohitura bilakatu da uztailan herriko plazan filmak ematea. Orain dela 10 bat urte, filmak emateko kanoia erosi zuten eta hasieran izara baten proiektatzen zuten. Pixkanaka, sistema sofistikatu joan ziren, eta pantaila erosi zuten.

Herritarrek oso harrera ona egiten diote ekimenari, eta herriko plaza bete samar egoten da emanaldi bakoitzean.

ADIN GUZTIETARAKO FILM EGOKIAK

Udaleko Kultura Saileko teknikari Arantza Untzuetak aukeratu ditu filmak. "Saiatzen gara film berri samarrak ekartzen. Horrez gain, ahalegina egiten dugu biolentzia gutxi izan dezaten, eta adin guztietarako film egokiak izan daitezen, batez ere, gaztetxo eta helduendako".

Izan ere, Arantzak uste du ordutegi hori ez dela umeendako egokiena; ez, behintzat, txikiendako. Horregatik, ez dituzte filmak horrenbeste mugatzen.


EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

Guztira, uztailan hamabi film emango dituzte. Horietatik, hiru euskaraz izango dira.

Astelehenean, *La casa de las dagas voladoras* eman zuten; eta eguaztenean, *El padre de él*. Gaur, egubakoitza, berriz, *Pinocho 3.000* emango dute. Pinocho pertsonaiaren bertsio gaurkotua da.

Astelehenean, hilaren 11n, abenturazko *Spy-kids* filma emango dute, euskaraz. Robert Rodriguezek zuzendu du. Eguaztenean, hilaren 13an, *La búsqueda* emango dute gazteleraz. Eta datorren egubakoitzean, animaziozko *Los increíbles* film ezaguna.

Adin guztietarako moduko filmak emango dituzte: abenturazkoak, komediak, eta beste



Luis Ezeizakoak Aitzorrotzen

Luis Ezeiza eskolako guraso elkarteak ikasturtea bukatzeko hainbat ekintza antolatu zituen. Lehenik eta behin, eskolaren jaia egin zuten eskolaren kanpoaldean, eta arrakasta izan zuen. Horren ostean, Aitzorrotzen kanpaldia egin zuten umeek eta gurasoek. Jaien aurretik izan zen, eta 20tik gora denda jarri zituzten. Bero handia izan zuten arren, oso gustura ibili ziren. Besteak beste, Uxarreko kobazuloak bisitatu zituzten, jokoak egin zituzten eta film emanaldiak egin zituzten. Datorren urtean berriro egiteko asmoa dute. / I.B.



Garaipenak ospatzeko, txangoa

Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol eta saskibaloitaldeek Kantabria eta Asturiasera txangoa egin zuten San Pedroren aurretik. Bazuten zer ospatu: areto futbol taldeak nazional B maila kategoriarira igoera; eta saskibaloitaldeak bigarren nazional mailan irautea. Txango horretara bi taldeetako jokalaririk, entrenatzaileak eta ordezkaririk joan ziren. Hainbat herri bisitatu zituzten, eta argazkia Covandogako lakuetan egin zuten. / I.B.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
IDORRIETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko uztailaren 8a / 158. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Santikurutze-Kanpezutik ekarri dituzte 70 kilo amuarrain, lehiaketarako

UBANE MADERA

San Martin jaien barruan, urtero egin ohi dute Arrantza Lehiaketa jaien osteko zapa-tuan, eta aurten ere hala egingo dute. Oilgor Ehiza eta Arrantza Elkar-teak guztia gertu dauka. Jakinarazi digute-nez, gaur ziren amuarrainak errekan askatzekoak.

Oilgor Ehiza eta Arrantza Elkar-teko kide Eduardo Fernandezek kontatu digunez, Santikurutze-Kanpezutik (Araba) ekarri dituzte biharko lehiaketarako amuarrainak. Gutxi gorabehera 70 kilo amuarrain askatuko dituzte Aramaio errekan. Hiruzpalau amuarrain izaten dira kilo bakoitzean, beraz, 210-280 amuarrain inguru. Hala, gaur gauean "ezkutuan" harrapatzen dituztenak kenduta, gainerakoak gaztetxoek gozamerako izango dira.

IZENEMATEA, GOIZEAN

Arrantza Lehiaketan parte hartu nahi duenak bide erraza dauka horretarako: 08:00etatik 09:00etara bitartean Ibarra joan eta antolatzaileei izena eman. Eduardo Fernandezek esan digun moduan, lehiaketan parte har-

tzeko gogoaz gainera, arrantzarako kanabera eramatearekin nahikoa da. Bestela, lehiakide bakoitzak nahi dituen tresneria guztiak eraman ditzake.

Gero, Salazandik Goikoerrotako presaraino, nahi duten lekuan bota ditzakete kanabera, arrantzan egiteko.

UR GUTXITXO ERREKAN

Hain zuzen ere, norberaren abilezia eta pazientzia garrantzitsuak izango dira lehiaketarako. Dena dela, Aramaio errekan orain daraman ur kantitate urria ikusita, pentsatzekoa da lehiakideek erraz samar izango dutela biharkoan amuarrainak harrapatzea.

GUZTIENDAKO SORPRESATXOA

Lehiaketa eguerdi partean bukatuko dela aditzera eman digute. Baita ere sariak izango direla, garaikurrak eta beste. Baina antolatzaileek gaineratu digute Arrantza Lehiaketa izan arren, ez dela horren garrantzitsua irabaztea, ekimenean parte hartzea, baizik. Halaber, parte-hartzaile guztiendako oparixoren bat prestatu dutela jakinarazi digute, arrantzarako materiala, hain justu: txirrikak...



210-280 amuarrain inguru askatuko dituzte gaur arratsaldean Ibarra Aramaio errekan.



Gure Historia bizi-bizi, Aramaion

Hasi eta bukatu dituzte beste urte batez Aramaio udako ikastaroak. Haiei esker, Euskal Herriko historiaren zati garrantzitsu bat aztertu dute adituek Aramaion (1789-1848 urte bitarteko historia, artea eta hizkuntza). Eta haiek entzutera ikasleak etorri dira EAetik (batez ere ibarretik) eta baita urrunagotik ere; batzuetan, egunero, 20-25 bat entzule. Modu horretan, askorendako Aramaio erreferente bilakatu da egunotan. / U.M. eta D.A.

LABUR

Gazte lokalak itxita, gertatu den istripua argitu arte

Herriko jaietan istripua gertatu da gazte lokaletan. Hain zuzen ere, jaietako bariku gauean, Arrasateko 15 bat urteko gaztea jausi egin zen lokaletako leihotik. Istripuaren ondorioz, apurdura batzuk izan ditu, besteak beste.

Horixe da orain arte dugun informazioa. Eta udaletxean ere oraindik ez dute gertatutakoa argitu. Hain zuzen ere, alkateak esan digun moduan, istripua argitu arte lokalak itxita daude eta itxita jarraituko dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behariko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

AIRE LIBREKO ZINEMA

Udaletik jakinarazi digute uztailan ez dutela egingo aire libreko zinema emanaldirik. Araudia falta delako hartu dute erabaki hori. Hain zuzen ere, emanaldi horiek kalean egiteak eragiten dituen zailtasunei aurre egiteko (eguraldi txarra...) araudi-rik ez dutelako.

KIROLDEGIKO LANAK

Kiroldegian hasi dira berritze lanak egiten. Orain arte, konponketa txikiak egin dituzte (berogailua...); orain, berriz, leiho eta ate berriak ipintzea falta da (segurtasuneko atekak, besteak beste). Udaleko arkitekto Haritz Maillor jakinarazi digunez, Arrasateko Argi-Plastik enpresari esleitu dizkiote lanak. Halaber, esan digu Argi-Plastik-en asmoa dela uztailan egitea lan horiek eta dagoeneko eskatuta dutela behar duten materiala. Edozelan ere, gaineratu dute uztaila hilabete txarra izaten dela, hala eta beraz, ezin dutela ziurtatu lanak uda aurretik egingo dituztenik.



San Kristobalera joateko gonbidapena

Uztailko bigarren domekak agintzen duen lege, uribarriarrek San Kristobal jaia antolatu dute. Hitzordua 12:00etan hasiko da, mezarekin. Gero, pintxoak eta salda emango dituzte, eta Lagun Artean dantza taldearen saioa izango da. Auzo bazkaria ere antolatu dute, baita erromeria eta bolo-txapelketa ere. /U.M.

BOTEPRONTOAN/ Edurne Isazelaia · Dukiena jatetxekoa

“Esaten dute hemen bizi zela tipo bat nahiko ondo bizi zena, eta esaten zioten ‘dukia’ bezala bizi zela”

Azkoaga bisitatu dugu oraingoan, han dagoelako, beste-lakoan artean, Dukiena jatetxea. Aramaioarrak zein kanpotarrak erakartzen ditu jatetxe hark. Hala kontatu digu Edurne Isazelaia. Arrasatearra da bera, baina Azkoagara ezkondu zen orain dela 17 urte. Handik gutxira, Dukienan hasi zen lanean, gizonarekin:

Orain dela 15 urte zabaldu zenuen Dukiena jatetxea?

Bai. Baserri osoa barrutik bota egin genuen, dena aldatu, etxebizitza goian egin eta hemen, jatetxea egin genuen. **Gaur zein menu ipini duzue?** Eguneroko menua? (Barre) Gaur entsalada mistoa, menestra eta makarroiak; eta gero tripakiak, txerri-txuletak eta sardinak. **Eta zelan erabakitzen duzue zer ipini?**

Apur bat ikusita zein genero dagoen. Eguneroko desberdina egiten dugu. Entsalada egoten da beti eta gero potaje edo berdura eta okela edo arraina. **Espezialitateak baduzue?** Hori da kartako asuntua. Asteburuetan kartara egiten dugu dena. Espezialitateak? Arraina jaten da asko, arraina labean eginda; eta gero, txuletak. **Baserriko oilasko gozoak ere ipintzen ei dituzue...**



Etxean geuk hazitakoak ditugu. Enkarguz egiten ditugu. Errepi-dearen beste aldean dugu oilategia, hortxe kanpoan egoten dira oilaskoak. Hala, enkarguaren arabera akabatu egiten ditugu. Baina oso gutxi saltzen da. Eta kartan ipinita dugu: *Baserriko oilasko enkarguz, eta jendeak ere ikusten ditu baina...*

Baleta eta zinema saioak, Vital Kutxaren eskutik

U.M.

Musika, Dantza, Zine VITAL Araban zehar. Hala izendatu dute Vital Kutxak irailera arte antolatu duen kultura ekimena. Zuiako Koadrilako herrietan egingo dituzte ekitaldiak; Aramaion, bi egingo dituzte: uztailan eta irailan.

Ekainean, Arabako dantza erakustaldia egin zuten Aramaion. Horixe izan zen *Musika, Dantza, Zine VITAL Araban zehar* izeneko ekimenaren barruan Aramaion egin zuten lehen ekitaldia. Horren bitartez, Vital Kutxak kultura saio jakinak eskaini dizkie Zuiako Koadrilako herriei, saioak herriz herri egiteko.

HURRENGOA, DATORREN ASTEAN

Hala, euskal dantzen saioaz gainera, Gasteizko Jose Uruñuela dantza kontserbatorioko balet taldearen ikuskizuna lotu dute Vital Kutxaren kultura egitarauaren barruan. 25 bat dantzarik egiten duten ikuskizuna da. Aramaiori dagokionez, datorren uztailaren 15ean egingo

dute emanaldia, 20:00etan, kultura etxean.

ZINEMA, AIRE LIBREAN

Eta hurrengo ekitaldia irailan egingo dute. Kasu horretan, Vital Kutxak aire librean zinema saioak egiteko aukera eskaintzen du, zinema mugikor baten bitartez. Hain zuzen ere, Aramaion, *Sahara* filma emango dute, irailaren 10ean, 21:00etan.

ZIGOITIKO EGITARAUA

Bestalde, Zuiako Koadrilaren barruan, Zigoitiko Zentro Sozio Kulturalan ekitaldi dezente antolatu ohi dituzte. Uztailera ere iragarri dizkigute batzuk. Horien artean, uztailaren 15erako, antzerki saioa antolatu dute: *Don Quijote en la aventura del titiritero*. Iluntzean egingo dute.

UMORE IRLANDARRA

Eta uztailaren 22an, berriz, McCrean irlandarraren umore-saioa izango da, 20:00etan; eta 23an, Santamaria abesbatzaren emanaldia, hori ere 20:00etan.

Uztailko egitarauarekin bukatzeko, herri bazkaria antolatu dutela iragarri digute.

Bai, ala? Ba aldea egongo da oilasko arruntengandik, ezta? Bai. Baina nik pentsatzen dut kaleko jendeak oraindik ez dakiela baserriko oilaskoa jaten. Da gogorragoa. Guk etxean jaten dugu asko. Baina jende gehienak nahiago du beste zerbait. **Dukiena izena du etxeak eta jatetxeak; duke bat bizi izan zen hemen, ala?**

Esaten dute hemen bizi zela tipo bat nahiko ondo bizi zena, eta esaten zioten *dukia* bezala bizi zela, eta hortik dator. Baina, ez pentsa, etxe txiki bat da Dukiena, pareko etxe handi horren menpekora zen. Hortaz, goituzen bat besterik ez zen. Baserriaren izena da Azkoaga-txiki baina mundu guztiak ezagutzen du Dukiena moduan.

Hamabost urte dela hasi zineten, beste horrenbeste bai?

(Barreak) Egin beharko ditugu, bai. Ondo gabiltza, hemen bizi gara eta bizimodua hemen egiten dugu... gustura.

Aramaiokoak ala kanpokoak datoz gehiago?

Denetik apur bat. Gasteiztik ere etortzen da jende asko eta Arrasateetik eta Aretxabaletatik ere bai. Hori asteburuetan. Astegunetan oso jende gutxi ibiltzen da kartara. Menuak-eta, berriz, langileek hartzen dituzte.

“Pentsatzen dut kaleko jendeak oraindik ez dakiela baserriko oilaskoa jaten”

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 8a / 14. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

“Gainontzeko herriek dituzten zerbitzuak gura ditugu Gatzagan”

XABIER URTZELAI

Gatzagarrak haserre daude, Diputazioarendako eta Mankomunitatearendako herria baztertuta dagoela ikusten dutelako. Hori ez da berria, baina horren kontra egiteko Gatzagako talde guztiak elkartu ziren eguaztenean udaletxean.

Erretiratuen elkartekoak, Toki Eder elkarteko ordezkariak, Sorginak, Gurelekoak, Dorletako Ama Txirringuluri elkartekoak eta Udaleko ordezkariak, guztiak batu ziren osoko bilkuren aretoan, herriak dituen gabezien gainean berba egiteko; eta berba egin bakarrik ez, baita gabezia horiek guztiak konpontzen hasteko eman behar diren pausoak zehazteko.

ESKAERAK, BANAN-BANAN

Esan gabe doa Gatzagak duen gabezia handiena garraio bide publikorik eza dela. Eta, hori da Gatzagako bizilagunek egingo duten lehenengo aldarrikapena: “Salatzekoa da Diputazioak Debagoieneko garraio bide arazoak aztertzen dituen txosten askotan Leintz Gatzaga alde batera utzi duela. Kontuan ere ez gaituzte hartzen, eta ez Diputazioak bakarrik, Mankomunitateak ere sekulako erraztasuna dauka Gatzaga alde batera uzteko”.



Eguaztenean batzarrean zehaztu zuten Udalak egingo dituela aldarrikapenak, baina talde guztien babesarekin.

Joxerra Perez alkateak zehaztu zuen Diputazioak urtarrilerako berriro ere taxi zerbitzua jarri gura duela, eta orduan borrokatu beharko dutela taxi horren zerbitzua ona izan dadin. Diputazioaren proposamen hori dela eta, baina, talde guztietako ordezkariak bat egin zuten esaten ez dutela behin-behineko konponbiderik

gura: “Beste herriek dituzten zerbitzuak gura ditugu, ez gehiago baina ezta gutxiago ere. Beste herrietan autobusak dituzte, eta hemen zergatik ez? Autobusean ezin dela hemendik ibili? Autobi-dea egiten dabilzan kamioiak ibiltzen dira ba gora eta behera”.

Gipuzkoako azken herria izateak ez dio herriari mesede egiten,

ezta ere herriko Udala independentea izatea: “Araba izan gura dugula esan beharko dugu, ea norbait mintzen den”.

Hasteko, Koldo Azkoitia diputatuari gutun bat bidaliko diote uztaillean bertan. Eta erantzuten ez badu, gatzagarrek beste neurri batzuk hartuko dituzte, gogorragoak, noski.

LABUR

Ordenagailua jarri dute Toki Eder elkartean

Elkarteko bazkideek kontua errazago egiteko ordenagailua jarri dute Toki Eder elkartean. Ibarreko elkarte gastronomiko gehienetan eman duten pausoa da hori, lana asko errazten duelako. Hori bai, gauzak errazago egiteko, baina, ordenagailua erabiltzen jakin behar da, eta horretan ahaleginduko dira elkarteko bazkideak, edadetuak batez ere. Eskua hartutakoan, eskertuko dute.

Sormen enpresak atzo egin zuen inaugurazioa

Sormen enpresa ez da berria, hainbat urte daramatza eta herrian. Baina Sormenekoek egoitza aldatzea erabaki dute, eta orain arte Ihardun enpresa egon den lekura aldatu dira, lehenengo solairura. Egoitza berriaren inaugurazioa egin zuten atzo, baina Asier Ugartek gaurko ere bazuen zer edo zer egiteko asmoa: “Egueneko inaugurazioa formalagoa zen, bezeroendako eta zuzendutakoa. Gaur, berriz, lagun artean elkartuko gara, koa-drilakoei zor diet eta”.

Asteburuan Pasaiara, eta astelehenean udalekuetara

X.U.

Gurel elkarteko lagun mordoak joango da bihar Pasaiara. Hasiera baten autoetan joan behar zuten, autobus txiki bat alokatzea pentsatu zuten gero, eta azkenean, autobus handian joango dira.

Gurelekoek egun-pasa egingo dute bihar Pasaia aldean. Itsas portuan, ontzi txiki batean egingo dute itzulia, eta Hendaia alde-

ra egingo dute gero. Gau ez itzuliko dira Gatzagara.

SAN FERMINAK, ASTELEHENEAN

Astelehenean hasiko dituzte Gatzagako gaztetxoek udalekuak, eta zelan hasi, gainera: San Ferminak ospatuko dituzte herriko kaleetan. Bi aste iraungo dute udalekuek, eta orain arte ludotekaz arduratu den begiralea ibiliko da gaztetxoekin, beste begirale batek lagunduta. Astelehenekoa, baina, hasiera

baino ez da izango: Otxandioko igerilekuetara irteera, kamisetak egitea, zaldian ibiltzea, sukaldaritza ikastaroa, uretako jokoak... Horrekin batera, Gaztainuzketako mendi etxeetan gau bat igaroko dute, eta Gamarrako igerilekuetara ere joango dira.

Horiek guztiak aste barruan egingo dituzte, baina asteburutan ere ez dira aspertuko. Uztailaren 23an afaria egingo dute Bengoerrekan, eta Dorletan igaroko dute gaua.




Pasaiako portuaren sarreran dauden etxeak.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Likidazioa
leku
aldaketagatik



Ate beiradunak



Beira eta altzairu herdoilgaitzezko
manpara dotoreak



Bainuko altzariak

Harremanetarako: 675 71 34 19 / 639 98 43 39

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2005

Uztailaren 18an, astelehena
21:00etan eta 22:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

IOSU
harategia
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Mirentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

LAGUNAK

DASTALEKU

Tel. 943712063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
- paellak eramateko

